

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko urtarrilaren 16a

IV. urtea • 139. zenbakia • DOAN BANATZEKO



**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



JON GARATE

“Euskal preso politikoaren egoera Europako hirietan azaltzea izan da gure nahia” /7

Goienka2a

Urte erdi dutenetik igerian ikasten dute ibarreko ume askok

ASTEKO GAIA: BIDEGORRIEN PLANARI BULTZADA EMAN NAHIAN

Oinez eta bizikletan ibiltzeko bideen alde



EDU MENDIBIL

Udalok oinezko eta txirrindulariondako gero eta baliabide gehiago egiten dihardute.

Bidegorrien planari beste bultzada bat emateko urtea da 2004a. Foru Aldundiak orain bi urte idatzi zuen bizikleta-bide sarearen egitasmoa, eta aurrean, beste konpromiso batzuk hartu ditu erakundeak, plana aurrera eramaten hasteko: hain zuzen ere, 2010erako bukatuko duela agindu du, eta behar handiena duten eskualdeei lehentasuna emango diela: tartean, Debagoienari.

Bitartean, ibarreko udalok oinezko eta txirrindulariondako gero eta baliabide gehiago egiten dihardute. Bizikleta garraiobide bezala erabiltzeko gero eta joera handiagoa dago, eta herritarrek bide egokiak eskatzen dituzte horretarako. /2-3

■ **Ibarreko erakundeok eta Aldundiak bilerak egingo dituzte aurrean**

■ **Oñatin 400 sinadura bildu dituzte bizikletan ibiltzeko baliabide eske**

Diputatu nagusia egon da Antzuolan, hainbat proiektu aurkezten

Eguaztenez Antzuolan egon zen Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia, herrian egingo dituzten hainbat proiektu aurkezten. Jose Angel Zabalo alkatearekin batera jendaurreko agerraldia egin zuen eguazten arratsaldean, Olan etxean.

Lehenago, eguerdian, Udaleko zinegotziekin eta alkatearekin batzarra egin zuen; batzar horre-

tan, herriko beharren, arazoaren eta Udalaren asmoen berri jaso ahal izan zuen, bertatik bertara. Bazkalostean, berriz, herriko enpresaburuarekin elkartu zen.

Gonzalez de Txabarrarekin batera Xabier Zuriarrain Azpiegiturako diputatua, Jose Antonio Rodriguez Diputatuaren Kabineteko zuzendaria eta Imanol Agote Kultura Departamentuko zuzendaria egon ziren. /4



AINZANE IRIZAR

Diputatu nagusia Errepedeetako diputatuarekin etorri zen Antzuolara.

DEBAGOIENA

Lastertasun Handiko Trenak geltokia izan dezala gura dute

Debagoieneko alkateak eta MCC-ko eta MUko buruak Alvaro Amann Garraio sailburuarekin batzartuko dira datorren eguaztenez. Debagoieneko azpiegituren egitasmoak izango dituzte mintzagai, eta batez ere bi konturi erreparatuko diote: batetik, tranbia elektrikoa; bestetik, Lastertasun Handiko Trena. /5

TELEBISTA

Fagorrek babestutako saio berria GOITBn

Datorren martitzenean estreinatuko du Goiena Telebistak saio berri bat: *Iragana gogoratu*. Fagorrek babestu du saio hori, Goienarekin sinatutako elkarlan hitzarmenaren ondorioz, eta Debagoieneko lanbide zaharrak ezagutuko ditugu saioan. Basoko lanbideak aztertuko dituzte lehen saioan. /4

ELGETA

Ezadostasunak EAJ-EA koalizioaren eta Aralarren artean

Elgetako Udal gobernuak kolokan dago. Izan ere, azkenaldian, ikamikan dabilta gobernu osoa duten taldeak: EAJ-EA koalizioa eta Aralar. EAJ-EA koalizioa leporatu dio Aralarri gobernu kideekin leialtasunez ez jokatzeari. Aralarrek dio ezadostasunak berba eginda konpondu behar direla, eta ez hedabideak erabilia. /4

LEIZE

beherapenak

% 30

Secundino Esnaola 13 DONOSTIA Fraiskozuri 5 BERGARA Olarte 5 ARRASATE

Kontzientziazioa, bide

■ Bidegorrien planak agerian jarri du ibarreko garraio arazoa

■ Hainbat udal bide egokiak egiten dabilta herrietan

■ Aldundiak lehentasuna emango dio gure ibarrari

LEIRE KORTABARRIA

Bizikleta-bideen Gipuzkoako planak beste bultzada bat jaso du egunotan. Plana idatzita zeukan Foru Aldundiak 2002tik, baina, azken Batzar Nagusien ondoren, Aralar alderdiarekin konpromisoa hartu du bidegorrien planari epe bat jartzeko: hain zuzen, 2010erako bukatuta egongo dela agindu du, errepide planarekin bat eginda. Bestalde, Aralarrek eskatuta, Aldundiak esan du lehentasuna emango die la garraio bide dentsitate altuenak edo arriskuko guneak dituzten eskualdeoi, eta Debagoiena horietako bat da. Aurten, hortaz, urte erabakigarria izango da planari bultzada emateko: izan ere, Diputazioak hainbat bilera egingo ditu aurten, lan programa prestatzeko.

Bestalde, udalak ere lanean dabilta, nor bere herrian baliabideak egiten: Arrasaten, datorren hilean hasiko dituzte oinezko eta bizikletan dabiltzanendako bide berri bat egiteko lanok; Bergaran, iaz bukatu zuten Soraluze-Bergara bidegorriko lehen zatia; Aretxabaletan ere oinezkoendako eta txirrindulariendako bide bat egin zuten, eta Eskoriatzan ere aurten dute asmoa hirigunerako mota horretako kilometro bateko bide baten aurreproiektua prestatzeko...

Aztarna horiek guztiak zerbait adierazten dute: gauzak aurrera doazela Debagoiengan, bizikletaren kultura indartze aldera, bai herritarron, bai udalen aldetik. Aldundiak, gainera, berretsi egin du plana aurrera eramateko "borondate sendoa".



LEIRE KORTABARRIA

Eguneroko bizitzan bizikleta erabili nahi dutenendako bide aproposak eskatzen dituzte debagoiendarrok, batez ere, hiriguneotan.

ERAKUNDEEN ARTEKO ADOSTASUNA

Debagoienerako diseinatuta dauden ia 72 bide kilometroak guztiz eraikita ikusi aurretik, ordea, lan handia egin beharra dago, eta horrek eskatzen du, lehenik eta behin, hainbat mailatako era-

kundeen planak eta borondateak uztartzea. Eusko Jaurlaritza, adibidez, tranbiaren egitasmoaz arduratzen da, eta horrek nahasmena ekar dezake; izan ere, tranbia eta bidegorriak zelan bateratu erabakitzea arazo izan daiteke.

Hori dela-eta, Jaurlaritzarekin hitz egin nahi du lehenbailehen Diputazioko Garapen Eramangarri Sailak.

Udalek ere zeresan handia dute etorkizuneko Debagoieneko bidegorri sarean; eta kontua da

ibarreko udalak ekintzetara pasatu direla azken hilabeteotan; herriotan oinezko zein bizikletendako azpiegitura berriak egin edo hasi dituzte. Garapen Eramangarriko arduradun Beatriz Martikorenak darama bide-

BIZIKLETA-BIDEA BAINO GEHIAGO Gertutasuna, kirola eta luzera handiko turismoa sustatu nahian

Garraio Eramangarri Sailaren bidegorrien egitasmoak hainbat helburu ditu; plan anbiziaduna da. Izan ere, bidegorriaren kontzeptuak "bizikletendako bidearen" ideia gainditu egin du, eta beste garraio mota batzuekin konbina daitekeen baliabide moduan ikusten da; aldi berean, herritarrongarri bizikleta eguneroko garraio bide moduan ikustearren kontzientzia indartu egin nahi du.

Gaur egun, bizikletendako bideak hiru helbururekin proposatzen dira. Hala diosku Beatriz Martikorena Diputazioko arduradunak: "Batetik, gertutasunaren filosofia da nagusi: herrian, egunero, bizikletan ibiltzeko aukera eman nahi diegu herritarrei. Bestetik, aisialdian bizikletan ibili nahi dutenendako baliabidea dira. Azkenik, luzera handiko turismo berdea bultzatu nahi da".

PLANAREN AURREIKUSPENAK 71.672 metro bizikleta-bide proposatzen ditu Foru Aldundiak

Bidegorrien plana, edo, bere izen ofizialean, Gipuzkoako bizikleta bideen sareari buruzko plana, 2002ko abenduan idatzi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Orduetik hona, ez da aldaketarik egin txosten horretan, eta horixe praktikara eramatea da Garapen Eramangarri Sailaren helburua.

Txosten hark Gipuzkoa osoa zeharkatu eta lotuko duen bizikleta-bide sarea aurreikusten du, eta xehetasun osoz dago idatzita. Horren arabera, Debagoiengan bi adar nagusi izango ditugu etorkizunean. Bata komunean izango dugu Debabarreneko eskualdearekin; eta Oñatira eta Aramaiora adar bana sartuko dira. Maltzaga-Bergara; Bergara-Arrasate; Arrasate-Eskoriatza; Eskoriatza-Leintz Gatzaga-Arabako muga; eta Elorregi-Oñati bideek osatuko dute. 71.672 metro izango ditu.

ARAZOAK ABANTAILA BIHURTU Bidegorriak beste garraio bide batzuekin konbina daitezke

Debagoieneko udalek euren egitasmoak aurrera eramaten dihardute, betiere, Aldundiarekin koordinazioan, edo, gutxienez, bata bestearen asmoen eta proposamenen berri jaso ondoren. Orain, Jaurlaritzaren tranbiaren egitasmoarekin bizikleta-bideon sarearen plana zelan bateratzen den ikusi behar da. Baina, hasiera baten arazo moduan ikusten dena, azken batean, abantaila ere izan daiteke. Izan ere, bi garraio bideon arteko osagarritasuna bilatu nahi da. Oñatiko bizikletazaleen taldeak ere iritzi bera du: "Eskatzen duguna da bizikletaz Elorregira joateko modua izatea, eta han, Debako hondartzara joateko garraio publiko egokia izatea". Tranbiarekin konbinazioa izan daiteke erantzuna: Europako leku askotan, txirrindulariok bizikletak eramateko egokituta daude tranbiak.

gorriak baino lehen

gorrien plana, eta honakoa diosku hark: "Udaloi entzun eta, ahal denetan, euren erabakien bideetik jarraitzea da gure asmoa". Izan ere, "udal bakoitzak daki, inork baino hobeto herriak zein behar eta zein baldintza dituen; batez ere, hiriguneko bideei dago kienez", gaineratzen du Martikorenak.

Koordinazio horri esker, azkenaldian ibarrean egin diren oinezko zein txirrindulariendako baliabide berriek gauza bat dute komunean: Vasco-Navarro trenbide zaharraren bidetik doazela. Izan ere, trenaren bidea berreskuratu nahi du egitasmo horrek, eta filosofia horren haritik lehen lankidetzara egin da: Bergarako eta Soralueko udalek Aldundiarekin hitzarmena egin zuten, bi herriak elkartuko dituen bidea egiteko. Lehen zatia eginda dago.

BALDINTZA ONENAK

Oztopoak ez ditugu faltan. Beatriz Martikorenak dioskunez, beste arazo handi bat izan da "eraikitzeke lurra aurkitzea"; izan ere, jakina da gure ibarrak orografia bihurria duela.

Arazo horiek direla-eta, bidegorrien plana Gipuzkoako eskualde batzuetan lehenago jarri da martxan beste batzuetan baino, eta horrek kezka piztu du Debagoieneran.

Izan ere, joan den astean, Gipuzkoako Batzar Nagusietan berriro eztabaidatu zuten gai hori, eta Donostialderako diru sarrera bat onartu zuten; ez, ordea, Debagoienerako. Horrek kezka eta mesfidantza piztu du hainbat debagoiendarrongan. Beatriz Martikorenak dio ez dagoela kezkatzeko arrazoirik: "Bidegorrien plana eskualdeka doa, eta eskualde bakoitzean ara-



Aurrerapauso asko eman dira 2002tik hona. Udalek oinezko zein txirrindulariendako bideak egin dituzte. Argazkian, Bainuetxetik Urkulurainoko bidea.

MIRARI ALTUBE

Oñatiko talde batek 400 sinadura bildu ditu, bizikletan ibiltzeko baliabide onak eskatuaz

zo eta baldintza jakin batzuk daude. Oraingoan, egitasmoa baldintza onenak dituen lekuetan ari gara martxan jartzen. Baina ez daitezela kezkatu debagoiendarrak; han bideak egiteko asmo sendoa dugu".

2002an idatzitako proiektuari beste bultzada bat eman nahi dio aurten Aldundiak

LANERA, ESKOLARA... BIZIKLETAZ

Bidegorri sarearen inguruko kezka eta iritzi-giroa txirrindulariendako bide-sare baten egitasmoaz baino askoz harantzago doaz, ordea: izan ere, Debagoienak dituen garraio gutxitasun

Oztopo nagusia da bidegorrien sarearen egitasmoa tranbiarekin zelan bateratu

larriak azaleratu ditu berriro egitasmo horrek. Herritarron iritziak eta eskaerak ere ildo horretatik doaz.

Oñatiko bizikletazale talde batek 400 sinadura jaso ditu azken hilabeteotan, eta Diputazioarekin

harremanetan jarri dira. Gero eta debagoiendar gehiagok nahi dute ibarrean beste garraio mota batzuk sustatzea, eta horretarako aukerak edukitzea. Oñatiko herritar talde horretako kide batek dioskun bezala: "Jende asko etorri zaigu esaten bizikleta erabiliko lukeela bere eguneroko bizitzan: lanera joateko, herrian ibiltzeko, edo Oñatitik Arrasateraino joateko... baina ezin duela, ez dagoelako horretarako inongo azpiegiturarik". Bizikleta eguneroko lagun eta moduan erabili nahi duten debagoiendar asko dago; orain falta da horretarako bide egokiak izatea, herrigunean eta kanpoan.



SORALUZE ETA OSINTXU ARTEKO BIDEGORRIA

Azkenaldian egokitu dituzte Soralue eta Osintxu artean 2.360 metro bidegorri. Udalen eta Diputazioaren arteko lankidetzaren eredu izan da lan hori. Vasco-Navarro trenbidearen bidea konponduz egin dute. Osintxutik Bergarako zatiko lanak ez dituzte oraindik egingo, beste lan batzuk direla-eta.



OTSAILEAN HASIKO DIRA LANAK ARRASATEN

Arrasateko San Andrestik saihesbideko bidegurutzera doan zatia egokitzen hasiko dira otsailean; lau hilabete dute horretarako. Udalak aurrera eramandako proiektua da hori, eta ez doa Vasco-Navarroren trazatutik; irudian, bidegorria nondik joango den. Foru Aldundia ados azaldu da egitasmoarekin.



OINEZKOEN BALIABIDEAK HOBETZE ALDERA

Udalek gero eta kezka handiagoa dute oinezkoendako eta txirrindulariendako baliabideen inguruan, bai herri-gunean, bai eta herri batetik bestera joateko ere. Datorren astean hasiko dira Bergarako Iraburuko tunela konpontzen; trenbide zaharraren azpiegitura hori oinezko ugarik erabiltzen dute.



Debagoieneko lanbide zaharren gaineko erreportaje sorta eskainiko du *Iragana gogoratz* saioak; tartean, ikazkinen gainekoa.

Fagorrek eta Goienak, lankidetzan, 'Iragana gogoratz' saioa sortu dute

Hamabi erreportaje eskainiko dituzte, guztira, hil honen 20an hasita

AINTZANE IRIZAR

Urtarrilaren 20an eskainiko dute *Iragana gogoratz* saio berriko lehen atala GOITBn. Fagorrek babestutako saio horretan, Debagoieneko lanbide zaharrak ezagutuko ditugu. Basoko lanbideak aztertuko dituzte lehen saioan.

Fagorren eta Goienaren arteko kolaborazioaren emaitza da *Iragana gogoratz* erreportaje sorta. Hitzarmena sinatu zuten bi enpresek, Debagoieneko industriaren historia euskaraz jasotzeko helburuarekin; hori guztiori, gainera, modu dibulgatzaile eta pedagogikoan egin dute.

Martitzenetan eskainiko dute saioa, hamabostean behin, 20:30ean eta 22:30ean. Ordu erdi inguruko erreportajeak dira.

Esan bezala, datorren astean bertan ikusi ahal izango dugu lehendabiziko erreportajea: basoko lanbideen gainekoa izango da, eta ikazkintza, karegintza eta elurzuloak izango dira saioaren gai nagusiak.

Hurrengo erreportajea otsailaren 3an eskainiko dute, eta base-ritarren eta jauntxoaren gainekoa izango da.

Horiez gain, armagintza, txokolate ekoizpena, lihogintza, errementari eta perratzaileak eta

gatzagintza ezagutzeko aukera ere izango dugu, besteak beste.

Maria Agirre Goienako kazetariak eta Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak egin dituzte erreportajeetako gidioiak; debagoiendar askoren laguntza behar izan dute informazioa osatzeko.

BIDE HORRETATIK JARRAITZEKO ASMOA

Inazio Arregi Goienako zuzendari nagusiak azaldu digunez, Debagoieneko enprekin era horretako harremanak sendotzen jarraitzeko asmoa du Goienak. Azken baten, bertako eragileekin hartu-eman izatea garrantzitsua da Goienarendako.

Bestalde, aurrera begira, baliteke erreportaje sorta hori salgai jartzea edo beste telebista kate edo enpresaren bati saltzea, etekinak ateratzeko. Etekin horiekin, aurten hasitako bideari jarraitu nahi zaio.

Debagoieneko lanbide zaharren gaineko erreportaje sorta osatzen du saio berria

Gobernua osatzen duten alderdien arteko krisia Elgetako Udalean

EAJ-EA koalizioak jakinarazi du hitzarmena berehala ezeztatu dezakeela

IRATI AGIRREAZALDEGI

Elgetako Udalean bi alderdik osatzen dute **Gobernu Batzordea**: EAJ-EA koalizioak eta Aralarrek. Bi alderdietako zinegotzien arteko ezadostasunak ika-mika sortu dute eta baliteke batzordea desgitea.

Elgetako Udaleko EAJ-EAko zinegotzi taldeak prentsa ohar baten bidez Aralarreko zinegotzietan honako eskaria luzatu die: "Gobernu kideekiko egun duen jokabide desleiala eta Udalaren funtzio-

namendu onarentzat kaltegarria dena berehala zuzendu dezatela".

Bestalde, ohar honetan gaineratu dute, "Aralarrek bere ohiko kritikekin jarraitzen badu edo ez badituzte gobernu kideen arteko gutxienezko jokabide arauak errespetatzen, behartuta izango gara sinatu genuen gobernu hitzarmena berehala ezeztatu eta Udaleko gobernuan bakarrik jarraitzera".

ARALARREN ERANTZUNA

Aralarren ustez, "Udalean ditugun ezadostasunak prentsa bidez

zabaltzea ez da politika egiteko modu egokiena, gutxiago argumenturik eman gabe". Aralarren esanetan, EAJ-EAko ordezkariak desadostasun puntuak aztertzeke deia luzatu arren ez dute erantzunik jaso.

Horren aurrean, jakinarazi nahi dute, "pribatuek gurekin batu gura ez dutenez, prest gaudete batzar publiko batean parte hartzeko. Gura dutenean eta herritar guztiak gonbidatuta. Bestalde, Elgetaren alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa dugula diogu, berriro ere.

Otsailaren 16an argitaratuko da 'Asteleheneko Goienkaria'

Monika Belastegi bergararra izango da errektoreburua


GOIENKARIA

Monika Belastegi kazetari bergararra izango da *Asteleheneko Goienkaria*-ren errektoreburua. Monika Belastegi esperientzia handiko kazetaria da. Besteak beste, *Euskaldunon Egunkaria*-n eta *Argia* astekarian jardundakoa da eta gaur egun Goienako kazetaria da; hain justu ere, *Berrigara* aldizkarian dihardu eta Goiena Telebistan ere jardundakoa da.

Izendapen horrekin, *Asteleheneko Goienkaria*-ren lantaldea osatuz doa apurka-apurka. Oihana Elortza kazetari oñatiarra ere ariko da *Asteleheneko Goienkaria*-n. Hura ere esperientzia handikoa da; besteak beste, urtetan ETBn ibilitakoa da eta azken hilabeteotan Goiena Telebistan jardun du. Horrez gain, Josetxo Arantzabal argazkilari elgetarra ere izango da lantaldean. Datorren astean egingo dira kiroleko kazetaria eta maketagele aukeratzeko azterketak, eta horiek aukeratu osatuko da lantaldea.


Asteleheneko Goienkaria-ren lehenengo zenbakia otsailaren 16an argitaratuko da. Gogoratuiko duzuen moduan, zero zenbakia joan zen abenduaren 22an banatu zen, doan, Debagoieneko etxe guztietan. Oso harrera ona izan zuen aurkezpeneko zenbaki hark, jendea asko gustatu zitzaiole.

Otsailatik aurrera, hala ere, egunkari saltokietan 0,8 euroren truke erosita edo, urte osorako harpidetuz gero (25 euro), etxean jaso ahal izango da. Harpidetza kanpaina bide onetik doa eta dagoneko asko eta asko dira urte osorako harpidetu direnak, kontuan izanda, %20 merkeagoa dela, beste hainbat abantaila dauzkala eta ibarreko euskara elkarteko bazkide direnek oraindik merkeagoa dutela harpidetuz egitea. Harpidetuz egitea oso erraza da: 902 36 38 51 zenbakira deituz egin daiteke; faxez, 943 79 22 93 zenbakira bidaliz astero GOIENKARIAren batera banatzen dugun txartela; GOIENKARIAren egoitzaren batera hurbilduz; edo www.goiena.net atarian.



GOIENKARIA

Monika Belastegi kazetaria.



Diputatu nagusia Antzuolan izan da

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia Antzuolako udaletxean izan da aste honetan. Alkatearekin batera, herriko hainbat proiektu aurkeztu zituen. Besteak beste, egungo frontoia bota eta etxebizitzak egiteko asmoa azaldu zuen; horien beheto solairuetan anbulatorioa, erretiratuen egoitza, eguneko zentroa, zaintzapeko etxebizitza eta gimnasioa egongo dira. Zupide eta Iriarte artean kiroldegia egiteko duten proiektua jakinarazi zuten eta gizarte etxearen berri eman zuten. /I.A.

Otsailetik aurrera, astero jasoko ditu traste zaharrak Mankomunitateak

Gainontzeko edukiontzien alboan laga beharko dira trasteak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Debagoieneko Mankomunitateak orain arte hilabetean behin egiten zuen etxeko traste zaharren bilketa. Baina %22 gora egin duela ikusita, otsailetik aurrera, bilketa astero egitea erabaki du, martitzenetan eta eguenetan, hain zuzen.

Otsailean ipiniko du abian Debagoieneko Mankomunitateak etxeko traste zaharren asteroko bilketa. Arrasaten eta Bergaran martitzenetan jasoko dituzte trasteak

hemendik aurrera, eta gainontzeko herrietan, berriz, eguenetan. Oñatin Udalak izan du orain artean bilketaren ardura, baina Mankomunitatearen esku laga du orain zerbitzua.

AURREZ ABISUA

Bilketa zerbitzua ahalik eta egokiena izan dadin, Mankomunitateak telefono bat jarri du: 943-71 19 38. Etxeko traste zaharrak ateratzeko asmoa dutenek zenbaki horretara deitu beharko dute aurrez, eta zakarretara zer bota behar duten esan.

Behin abisua emanda, herri bakoitzari dagokion egunean gainontzeko edukiontzien alboan utziko dira.

Mankomunitateak bilketaren maiztasuna aldatzeko arrazoia izan da zakarretara aterako trasteen kopuruak %22 gora egin duela.

Beraz, datorren hilabetetik aurrera, altzariak, koltxoak zein bestelako traste handiak astero zakarretara ateratzeko aukera izango da. Azkenaldian, altzariak ez ezik ordenagailuak ere botatzen direla jakin dugu.



MONIKA BELASTEGI

Martitzenetan Arrasaten eta Bergaran jasoko dituzte, eta beste herrietan eguenetan.

DEBAGOIENEAN LABUR

Ereitten: "Udal aurrekontuak oñatien eta herritarren nahiei ez die erantzuten"

Ereitten Oñatiko herri ekimena legez kanpo utzi zuten azken udal hauteskundeetan; ondorioz, ezin izan diote emendakinik jarri EAJ-EAren izenean aurkeztu eta osoko bilkuran onartu zen aurrekontuari. Hori dela eta, aurrekontuen gaineko iritzia azaldu dute Ereitten ekimenekoek. Beraien esanetan, udal aurrekontua "ez da nahikoa Oñatik eta oñatien ditugun beharrei erantzuteko". Besteak beste zera diote: "Ez dute justizia soziala, gure lurraldearen antolaketa zein kudeaketa aurrerakoa defendatzen; ez dute nazio eraikuntza kontuan izaten; ez dute emakume zein gizonezkoen arteko aukera berberak bultzatzen; euskarari aurrekontu osoaren %3,63 bakarrik ematen diote".

Balzers-Elayko langileek bertan behera laga dute hilaren 8an hasitako greba

Joan zen egunean, urtarrilaren 8an, ekin zioten Antzuolako Balzers-Elay lantegiko ekoizpen arloko 24 langilek mugagabeko grebari. Baina egun gutxiren buruan, bertan behera laga dute lanuztea. Lan egutegia zela-eta hainbat desadostasun izan zituzten zuzendaritzarekin. Batez ere, zapatuetan lan egitearen truke zuzendaritzak eskaintzen zienarekin ez zeuden ados langileak. Hala ere, enpresako gerentarekin batzarra egin eta zuzendaritzaren baldintzak onartu dituzte langileek. Horretarako ipini duten baldintza da apiriletik aurrera, hitzarmena negoziatzerakoan, zapatuetako lan jardunaz hitz egitea.

Ibarreko alkateekin batzartuko da Alvaro Amann Garraio eta Herrilan sailburua

Datorren eguaztenean, urtarrilaren 21ean, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan sailburua, Alvaro Amann, Arrasaten izango da. Bertako udaletxean Debagoieneko azpiegituren proiektuak aurkeztuko ditu. Garraio eta Herrilan sailburuarekin ibarreko alkate guztiak, Inaxio Oliveri MUKO errektorea eta Jesus Catania MCCko presidentea batzartuko dira. Besteak beste, Lastertasun Handiko Trenaz eta tranbia elektrikoaz egingo dute berba bileran. Gainera, baliteke Debagoieneko alkateek Amanni eskari bat egitea: Lastertasun Handiko Trenaren geltoki bat ibarreko herriren batean kokatzea, hain zuzen ere.

Energia garbia lortzeko 22 eguzki-xafla ipini dituzte Eskoriatzako kiroldegian

Eskoriatzako Udalak energia garbi eta berritzaileen aldeko apustua egin du. Intxaurtxueta kiroldegiko teilatuan ipini dituzten eguzki-xaflak horren adibide dira. Bi instalazio egin dituzte: kiroldegian erabiltzen duten ura berotzeko lehena; eta argindarraren dako bestea. Guztira, 22 xafla daude kiroldegiko teilatuan, eta, lortutako energia baliagarria izango bada ere, ez ditu kiroldegiko beharrak aseko. Beraz, errentagarritasun handirik aterako ez zaien arren, herritarrei erudia emateko balioko dute.

Nafarroa etorbidea 2
20500 Arrasate-Gipuzkoa

902 36 38 51

943 79 22 93

astelehenekoa@goiena.com
www.goiena.net

HARPIDETZA TXARTELA

Izendetura: _____

Helbidea: _____ Tel.: _____

Herria: _____ Kode postala: _____

Posta elektronikoa: _____

Non jaso nahi duzu? Etxean Kioskoan

Beste nonbait* _____

Harpidedunaren kontu korrantea (20 zenbaki):
[]

Urteko harpidetza: 25 € / 40 ale urtean

*Herriz kanpoko banaketa kasuz-kasu aztertuko da.

OÑATI

Kultura etxearen gaineko balorazio oso positiboa egin dute arduradunek

Eguaztenean aurkeztu zuten iazko kultura ekitaldien gaineko balorazioa German Meabebasterretea kultura teknikariak eta Ernesto Murgiondo kultura zinegotziak.

Zine emanaldiei dago kienez, ia %55 egin du gora ikusle kopuruak; liburutegi berriak ere arrakasta izan du, eta lehen joaten ez ziren herritarrek erakarri ditu. Santa Ana antzokiaren gainean, baina, ez ziren oso baikor azaldu; antzoki moduan, hamalau ekitaldi antolatu dituzte, baina erantzuna ez ei da oso ona izan. /A.I.

ANTZUOLA

Proiektu ugari aurkeztu ditu alkateak jendaurrean

Eguaztenean jendaurreko agerraldia egin zuen Jose Angel Zabalo alkateak, datozen urteetarako esku artean dituzten proiektuen berri emateko. Joxe Juan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiarekin batera egin zuen berbaldia herriko alkateak.

Proiektu aipagarrien artean, honako hauek aurkeztu zituen: bi bidegorri egitea; frontoia bota eta hantxe etxebizitzak, ambulatorioa eta eguneko zentroa egitea; gizarte etxearen gainean babestutako etxebizitzak egitea; kiroldegia egitea... /A.I.

ARAMAIO

Arabako taldekako finalean izango dira herriko bertsolariak

Bihar, zapatua, Aramaio-ko bertso-eskolako zenbait bertsolarik Arabako Taldekako Bertsolari Txapelketako finala jokatu dute. Hain justu ere, Gorbialdeko taldearen ordezkari izango dira, eta Gasteizko taldearen kontra jokatu beharko dute aramaiarrek. Ez dute lan erraza izango, gainera; izan ere, besteak beste, Oihane Perea izango dute aurrez aurre. Naroa Sasieta ibili da gaiak jartzen.

Agurainen izango da saioa; 14:00etan hasiko da, Zerua jatetxean. /U.M.



MONIKA BELASTEGI

BERGARA

Urtarril bukaeran abian egongo da garabi zerbitzua

Bergarako Udak garabi zerbitzua abiaraziko du urtarril bukaera aldera. Dagoeneko erosi du garabia, eta autoak lagatzeko gordailua egokitzea besterik ez zaio falta, Labegarrietan. Udaltzaingoa arduratuko da zerbitzuaz, eta, besteak beste, halako lekuetan aparkatuta dauden ibilgailuak eraman ahal izango dituzte garabiarekin: autobus geltokietan, taxi geltokietan, bigarren ilaran gidaririk gabe eta espaloian. Prezioari dago kionez, garabiak autoa eramanez gero, 25,15 euro ordaindu beharko ditugu gordailutik ateratzeko eta, horrez gain, arau urratzeari dagokion isuna, noski. Gainera, autoak gordailuan ematen duen egun bakoitzarengatik beste 6, 80 euro ordaindu beharko dira. /M.B.

ELGETA

Espaloia kafe antzokia egokitzeko lanak egiten hasi dira igeltseroak

Espaloia kafe antzokian hasi dira lokala egokitzeko lanak egiten. Udaletik esan digutenez, proiektua oso aurreratuta dago eta jaietarako dena gertatuta egotea espero dute.

Espaloiko eraikina aspaldi egin dago eta zenbait ekitaldi ere egin dira bertan. Hala ere, oraindik egokitze lanak falta dira. Joan zen urtarrilaren 7an hasi zituzten lanak, eta egun hauetan, igeltseroak eta argiketariak ibili dira lanean.

AKUSTIKA

Taberna, sukaldea eta jan-gela prestatzen hasi dira jadanik Espaloian, eta horretarako horma batzuk bota dituzte.

Bestalde, akustika zaintzeko zenbait lan egiten ere aurki hasiko dira. Izan ere, Espaloian oihartzun handia dago eta hori konpontzeko beharra ikusi dute. Horretarako, *ilsbruc* izeneko materiala erabiliko dute.

Taberna egokitzeaz gain, eszenatokia ere prestatuko dute. Hau da, soinua, argiztapena eta antzokiko oihalak mugitzeko makineria ipiniko dute behar bezala. Honekin batera, ekitaldiak daudenerako jendea egoteko zenbait gune ere egokituko dituzte. Izan ere, gaur egun jende askok arazoak izaten ditu antzerkiak zein bestelako emanaldiak ikusteko. Hain zuzen ere, antzerki obretarako konpondu nahi dute batez ere aretoa.

Espaloien ekipamendu proiektuak guztira 342.272 euroko kostua izango du. /I.A.

Zertzelada

Espaloiko ekipamendu lanek 342.272 euroko kostua izango dute eta uztaileko, jaietarako, amaituta izatea espero dute Udaleko ordezkariak.

ARRASATE

Bost tona elikagai batu dituzte Aljeriako kanpalekuetarako

Hilabetez sahararrei laguntzeko elikagaiak batzen ibili eta gero, antolatzaileak pozik daude emaitzarekin: bost tona elikagai, aurreikuspenen arabera. Orain, guztia paketeetan ipintzea falta zaie, eta gero Tindoufeko kanpalekuetako sahararrei helaraztea, kamioiz. Hain justu ere, horretarako dirua batzen segituko

dute otsailera arte. Bi kontu korrante zabaldu dituzte, Kutxan eta Euskadiko Kutxan, lagundu nahi duenarentako.

Bestalde, Marokok okupatutako lurraldeen gaineko argazki erakusketa izan da egunotan Monterronen, Xabier Errasti *Jerras-en* eta Idoia Zabalearen argazkiekin. /U.M.



U.M.

Okupatutako lurraldeen gaineko erakusketa izan da Monterronen.

ARETXABALET

Euskal historiaren gaineko hitzaldiak antolatu dituzte Kurtzebarri eskolan

Euskal Herria hartu dute hizpide Kurtzebarri eskolan aurtengo ikasturtean, eta Udalaren laguntzarekin euskal historiaren gaineko hitzaldi zikloa antolatu dute. Lehenengo hitzaldia azaroan izan zuten, eta hurrengo egunean egingo dute, urtarrilaren 22an, 19:00etan, Kurtzebarri eskolan bertan. Tomas Urzainki historialaria eta Nabaralde elkarteko presidentea etorriko da, eta 1200. urteak Euskal Herrian izan zuen garrantziaren inguruan egingo du berba. Kurtzebarri eskolak herritar guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera. /M.A.

ESKORIATZA

Euskara ikasteko dirulaguntzak emango ditu aurten ere Udalak

Euskara ikasi nahi duten eskoriatzarrei dirulaguntzak emango dizkie aurten ere Eskoriatzako Udalak.

Dirulaguntza horiek bi kontzeptutan emango dira: batetik, barnetegietako matrikulak ordaintzeko, eta, bestetik, euskaltegi-tako matrikulak ordaintzeko. Laguntza horiek lortzeko, ordea, baldintza batzuk bete behar dira. Esaterako, Leintz euskaltegian ez aritzea. Laguntza horiek 2004. urte osoan egongo dira indarrean, eta Kultura batzorde informatzaileak du zalantza guztiak argitzeko eskumena. /O.E.

LEINTZ GATZAGA

Saharar herriari laguntza eman gura izan diote herritarrek

Debagoieneko hainbat udalek egin dute saharar herriaren aldeko *Gosez hila nahi gaituzte* kanpainarekin. Gatzagako Udak ez du zuzenean parte hartuko, baina Gatzagako lau lagunek oinarritzko elikagaiak eraman dituzte Arrasateko udaletxera, desertura eraman dezaten: 50 kilo azukre, 15 kilo pasta eta lekale eta beste 5 kilo kakao. Lau herritarrok duela bi urte Tindoufeko kanpamenduetan egon ziren, Saharar Emakumeek antolatu zuten kongresuan. /A.G.

Etterat taldeak antolatuta, euskal preso politikoen zenbait senide eta lagun Europako hainbat hiritan izan dira bidaian, presoan egoera salatzeke eta elkartasuna eskatzeko. Milanen izan da Jon Garate –Arrasaten bizi den elgoibartarra– beste mondragoetar batzuekin. Euren aldarrikapenak zein izan diren eta zer-nolako harrera egin dieten kontatu digu bidaiatik bueltan.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Zein izan da Etterat taldeak deituta Europako hainbat hiritara egindako bidaian helburua?

Helburu nagusia, hemen egiten dugun bezala, European euskal preso politikoen egoera salatzea izan da. Batetik, disperzioa dago eta baita horren ondorioa ere. Izan ere, azken urtean hiru senide hil dira errepidean, presoak bisitatzea joanda, eta disperzio politika hasi zutenetik hona, guztira 14 izan dira auto istripuan hildakoak. Bestetik, tortura kasuak daude. Gero eta tortura salaketa gehiago jasotzen dira. Gainera, atxilotu ostean, bost eguneko inkomunikazioa (konfiantzazko abokatu, mediku edo senideekin egoteko eskubiderik gabe) izatea ohikoa bihurtzen ari da, eta hori European kontatu dugunean harrituta geratu dira.

Espainiako Estatuak European azaltzen du terrorismoaren aurkako borrokan zuzen diharduela, baina guk jakinarazi nahi izan diegu borroka hori ez dela dioten bezain garbia.

Bete dira helburuak?


Bidaiatik oso gustura itzuli gara, harreara oso ona egin baitigute. Gure asmoa izan da eragile sozial, politiko zein sindikalei eta baita Europako komunikabideei arazoaren berri ematea, eta, hein handi batean bete egin denez, pozik gaude. Hala ere, gure aurrean hartutako konpromisoak betetzea falta da orain.

Zuk zeuk nola hartu zenuen Etterat-ek antolatutako bidaian parte hartzeke erabakia?

Gaur egun errepresioak hartu duen bidea ikusita, behin-behineko atxiloketak ere gehitzen ari direla jakinda eta presoek euren sorterritik hain urruti bizi duten egoera nolakoa den ezagututa, nik horren aurrean egin nezakeen gutxiena horrelako mobilizazio batean parte hartzea zela iruditu zitzaidan. Izan ere, eurek herriarengatik hori eta gehiago eman dute urtean. Ni neu Milanen izan naiz, eta bertan, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabatik joandako 25 lagun gizarte etxe baten (gaztetxe baten antzerakoa) egon gara. Bost eguneko gose greba egin dugu han.

Bost eguneko gose greba egitea ez da erabaki gogorra?

Igandean abiatu ginen bidaian, eta astelehenetik ostiralera greba egitea bera nahiko gogorra izan zen. Bosgarren egunean jan gabe egon ondoren hartu genuen salda zeinen gustura edan genuen guk bakarrik dakigu. Baina ikusita presoek zenbat gose greba egiten dituzten eta horiek baino egoera gogorragoak pasatzen dituztela, beraiengatik egin daitekeen gauza bat dela iruditzen zait. Gainera, honela, euren borrokarekin bat gatzozela erakusteko modua izan dugu.



UBANE MADERA

Jon Garate

ETXERAT- EK ANTOLATUTAKO EUROPAKO BIDAIA PARTU HARTU DUEN GREBALARIA

“Euskal preso politikoez bizi duten egoera European azaldu eta elkartasuna eskatu nahi izan dugu”

GOSE GREBA

“Gose greba egitea gogorra izan bada ere, presoek horrelakoak eta handiagoak egiten dituzte, eta euren alde egin dezakedan gutxiena dela uste dut”

ELKARTASUNA

“Lehenengo egunean, Espainiako kontsulatuaren aurrean 250 italiar zeuden gure zain, eta ondorengo kontzentrazioetan ere askok hartu dute parte”

Zein mezu zabaldu duzue Europako hirietan?

Etterat-ek deituta helburu bera zuten sei bidaia egin dira:artzelona, Genevara, Parisera, Berlinera, Milanera eta Bruselara. Tokian tokiko hizkuntzetan idatzitako pankartak erakutsi ditugu kale agerraldietan, eta hemen erabiltzen ditugun lelo bertsuak zabaldu ditugu han ere: *Euskal presoak Euskal Herrira, Stop torturari...*, eta abar.

Etterat-ek hiri bakoitzaren arabera ekintzak antolatu ditu.

Hiri bakoitzak bere izaera duela jakinda, horren arabera ekimen bat edo beste egitea erabaki genuen. Berlinen kontzentrazioak eta hitzaldiak egin dituzte batik batik; Genevan barneko lan gehiago egin da; Bruselan, esaterako, Koldo Gorostiaga europarlamentarioa izan dute lagun eta, besteak beste, Europako Parlamentuan prentsaurrekoa eman zuten Etterat-eko

ordezkariak.artzelona joandakoak Parlamentuko presidentek hartu zituen, eta zenbait eragilek presoan aldeko manifestu bat sinatu zuten Kataluniako hiriburuan.

Milanen zein ekintza egin duzue?

Milango giroa ez da hain instituzionala izan, eta ia egun osoa kalean eman dugu kale agerraldiak egin eta esku-orriak banatzen. Kontzentrazioak egunero egin ditugu eta gure taldeko hainbat kide, senideak eta bertako arduradunak irratietan izan dira elkarrizketak egiten. Espainiako kontsulatura ere joan ginen, eta kontsularekin egoterik izan ez genuenez, sarreran utzi genion agiri bat gure eskariekin. Toki guztietara polizia inguratuta joan gara eta aurrez egin behar genuenaren berri emateko agindua geneukan. Azken egunean, gose grebari eta bidaiari amaiera emateko, hitzaldi bat antolatu genuen gizarte zentro batean. Bertan izan ziren Giovanni Giacomuzzi, ETAr buruzko liburu baten eta beste hainbat lan egilea, Mauro Bulgarelli Berdeen alderdiko ordezkaria, Radio Popularreko Antonio Biotto kazetaria eta Etterat-eko ordezkari bat, eta entzuleak ehunetik gora izan ziren.

Zuek bertako laguntzarik edo elkartasunik jaso duzue?

Lehenengo egunetik zentro sozialean denetik eskaini ziguten. Bestalde, kontzentrazioetan, italiarrak aldamenen izan ditugu. Espainiako kontsulatu aurrera iritsi ginenean 250 lagun zeuden gure zain Ikurrin handi batekin. Plaza nagusian ere 80 lagun elkartu ziren protestara, musika eta guzti. Askok bazekien hemengo berri han eta hemen irakurrita, eta, horrez gain, hemengo arazoari buruz galdera asko egin zizkiguten eta interes handia azaldu zuten. Nik, joan aurretik, ez nuen inondik inora espero jaso dugu harreara emango zigitenik.

Zenbait gizarte eragilerekin bildu zarete, ezta?

Hainbat berri agentziarekin izan gara, baita talde politikoetako ordezkariekin ere, feministekin, bertako presoan aldeko komite bateko kideekin, Giza eskubideen aldeko Emergenci elkarteekin, Udaleko hiru zinegotzirekin... Sozial demokratik eta hemengo Ezker Batua taldearen pareko alderdiko ordezkariak ziren azken hauek, eta garbi utzi ziguten gai politikoetan ez dutela inplikatu nahi, baina giza eskubideen urraketa nabarmena dela ikusita, hainbat konpromiso hartu dituzte. Besteak beste, senideekin egotea, presoak bisitatzea... Dударik gabe batzuek besteek baino konpromiso sendoagoak hartu dituzte, baina behintzat entzun digute; eta, hainbestean, pozik.


Arazorik izan duzue?

Araza handirik ez, baina kalean esku-orriak banatzen geunden batean atso batek zera esan zidan: “Kartzelan badaude zenbait egin dutelako izango da”. Argi azaldu behar izan nion emandako orria irakurtzeko eta Espainiako espetxe legeak esaten zuenaz enteratzeko, eta gero erabaki zezala ea legeak behar bezala betetzen diren. Hari ez ezik gainontzekoei ere legea betetzeko aldarrikapena egin genien.

Euskal preso politikoen kolektiboak zein egoera bizi du gaur egun?

Espetxeetan urtetan ez da aldaketa handirik izan. Kartzeletako tratua berez bada txarra, Espainiako Gobernuak zenbait lege hausten ditu. Esaterako, bakar-tze gelak behin-behineko kasuatarako baino ez dira gehienetan; hau da, espetxe barruko arauen bat betetzen ez duena sartu ohi dute bertan. Baina preso politikoei horrelako geletan askotan eta denbora luzez sartzen dituzte. Hori adibide bat baino ez da, eta egoera horrekin amaitzeko eta legeak bete daitezzen eskatzeko lanean jarraituko dugu.

Zabalik

ANDONI
URZELAI

Kabroitzarrak

Eta zuk? Zer izan nahi duzu zuk handia egiten zarenean? Horixe galdetu nion lagun baten seme txikiari joan den astean. Nik? Famoso, esan zuen inolako duda izpi barik, famoso izatea ofizio bat balitz bezala.

Haurrek dagoeneko (eta ez hain haurrek seguruenik) ez dute suhiltzaile, mediku edo elektrizista izan nahi. Bai, zera! Futbolari, abeslari edo telebista izar izan nahi dute. Edo ze demonio! Horren glamurosoak ez diren lanbiderik lortu ezean, ba, futbolari ezagunen baten amorante edo abeslari famoso baten zerbitzari... Edozer, ospearen atea irekiko dizkien lana bada. Nola ireki ospearen atea? Telebistako erakusleihen erraldoian zure burua ezagutzera emanda.

Eta ulertzekoa da, aizu! Ospe garaiotan ez dago anonimoa izatea baino gauza okerragorik eta!

Eta nago ospe-nahi hori ez dagoela diruarekin lotuta, hau da: nerabeek ez dutela famoso izan nahi aberats bilakatzeko. Ez, fama berez zaie erakargarria. Ezagun izan nahi dute nola edo hala.

Gran Hermano, Basetxea edo Operacion Triunfo-ko kabroitzar horiek guztiak bezala bizi nahi dute, haiek bezain ezagun izan, haiek gizartean sorrazten duten miresmena bereganatu.

Eta bekaizkeri ukitu batekin erabili dut kabroitzar hitza, bistan da, ezta? Nik ere halakoxea izan nahi nuke eta: famo-soa.

Ai...! Nago gizarte superfizial absurdo honen hatzaparrek guztiok gauzala paparretik helduta...

Gutunak

Eskerrik asko, danoi

Aurreko urtietan moduen, Errege Kabalgatia kalez kale ibili zan urtarrilaren 5ian, Arrasateko ume eta nagusixen ilusioak bete nahixan. Irribarre eta desio horrein danon atzetik lanordu eta orotariko laguntzia egoten da, eta horreik danok eskertu gurako genittuzke.

Kabalgata egunien parte hartu zintuen neska-mutil gazte zein helduoi eskerrik asko beste urte batez gurekin ilusio hau bizitzia-gattik. Herrittarron partehartze barik ezin da Kabalgatia inolaz be aurrera atara, eta hau danok kontutan hartu biarreko zerbaitx da!

Beti laguntza eskaintzeko prest egon dien honakuoi be esker mila: Arrasateko Udala, Arizmendi Ikastola, SUDC, Gurutze Gorria, Eroski, La Caixa, Euskadiko Kutxa, Cenciaga, Itzala, Kajoi, Ederra, Monte, Elkorro, Kutxa, Lora, Garibai, Okorotegi, Rob Roy, Aterpe, Muruamendaratz goxotegia (S. Andres), Troko, Maza, Eskiña, Banco Guipuzcoano, BSCH, Vit Sec, Lasagabaster, Gorosabel familia...

Datorren urtera arte, zintzuak izen!

ARRASATEKO ERREGE KABALGATA
ANTOLATZEN DUEN KOMISIOA
Arrasate

Villabonako
katxeo ilegalak

Beste behin ere, gure senide presoek eskubideak ez dira errespetatuak. Beste behin ere, guztiz ilegalak diren egoera eta jazarpenak pairatu behar dituzte, eta hauxe da hain zuzen ere Asturiasko Villabona espetxean gertatzen ari dena.

Isolamenduan aurkitzen diren euskal preso politikoei bis a bisetara doazen bakoitzean katxeo integralak jasaten dituzte, biluztera behartzen dituzte nahiz eta katxeo hauek erabat ilegalak izan. Egoera hau salatu eta elkartasuna adierazteko asmoz, modulu arruntetan dauden euskal presoek ere bis a bis bakoitzean borondatez biluztea erabaki dute. Egoera iraunkor eta jarraian isolamenduan egotea guztiz ilegala dela salatu izan ohi dugu behin eta berriz, eta hori gutxi ez, eta orain Epaitegi Konstituzionalak debekatzen dituen katxeo hauek salatu beharrean aurkitzen gara.

Egoera honetan bi herritar ditugu, hain zuzen ere, Premin Sanpedrok jasan beharrekoagatik (isolamenduan aurkitzen baita) Aratz Gomezek ere biluztea erabaki baitu.

Espetxean egotea gutxi ez, eta beste behin beraien duintasuna suntsitzea dute helburu. Zenbat egoera gehiagori egin beharko diete aurre beraien eskubideak errespetatuak izan arte? Nahikoa da! Etxerat-etik exijitzen dugu gure senide presoek aurka ez dezatela egoera ilegal gehiagorik aplikatu. Eta hau horrela izan arte presoek eta beraien senideek lanean jarraituko dugula adierazten dugu argi eta garbi.

Villabonan gertatzen ari denaren aurrean presoak egiten ari direnaren antzera, zerbait egin dezakegu kanpotik ere. Horretarako, hurrengo egunetan tabernetan orri batzuk aurkituko dituzue betetzeko. Horietako testuan izen-deiturak bete beharko dira eta ondoren Etxerat arduratuko da testu horiek guztiak Villabonako espetxeko zuzendariari igortzen. Animatu eta bete orriak!

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate

Elgetako Aralarri

Elgetako EAJ-PNV/EAKo zinegotzi taldeak elgetarrei jakinarazi nahi die Aralar taldeari egiten dion eskaria, talde honek bere gobernuko kideekiko gaur egun daukan jokabide desleiala eta Udalaren funtzionamendu onarentzat kaltegarria dena, berehala zuzendu dezala, bereziki, elgetarrendako horrenbeste egitismo interesgarri egiteko dauden agintaldi honetan.

Udalean sei hilabete jardunean izan ondoren, berriz ere etsituta sentitzen gara Elgetako Aralarren ordezkariak izan duten jokabidearekin. Gobernu hitzarmena sinatu ondoren eta euren jokaeraren aurrean, lankidetasun harremanak izaten saiatu arren, hasieratik konfiantzarik eza, kritikak eta faltsukeriaz egindako komunikatuak besterik ez dugu jaso eurengandik, gobernuan dauden herri ordezkariena baino gehiago, kazetari sentsazionalisten jarrera azalduz.

Gaurtik aurrera, Aralarren ordezkariari eskatuko diegu beste behin agintaldi honetarako hitzartutako helburuengatik leialtasunez lan egiten duten gobernuko kideen jokabidea izan dezatela.

Baldin eta Aralarrek jarraitzen badu kritikatzeko (buletinekin, komunikatuekin edota batzordeetan edo osoko bilkurretan adierazpenak eginez) gure gobernuko jarduna, aurretik hitzartutako gaiekiko, edo ez badituzue gobernuko kideen arteko gutxieneko jokabide arauak errespetatzen (pertsonek arteko irizki ezberdinak agerian jarritik, onartutako semaforoen aurka azalduz, saihebidetari buruzko gestioei buruz edota mendi museoaren inguruan gezurrak esaten eta abar) behartuta izango gara sinatu dugun gobernu hitzarmena berehala ezeztatu eta Udaleko gobernuan bakarrik jarraituzera.

ELGETAKO EAJ-PNV/EA
Bergara

Zuzenketak

Joan zen asteko GOIENKARIAn, 7. orrialdean, Manu Arregiri egindako elkarriketan huts bat zegoen: Manu Arregik zioen eguzkiak 4.500 urtez jarraituko duela berotzen; esan nahi zuen, eta horrela agertu beharko litzateke, 4.500 milioi urtez jarraituko duela berotzen.

Bestalde, zenbaki berean, 9. orrialdeko iritzi sailean, Josemari Velez de Mendizabalen artikulua bat argitaratu genuen. Artikuluaren izenburuan eta sarreran huts batzuk zeuden: 1. Artikuluaren egileak ez du Juan Leibar-en liburuaren argitarapena Arabako Diputazioaren eragin. Hark eragin duena da haren aitona zenaren (Jose Maria Azkarraga) liburuaren bigarren edizioa. 2. Maisu Aranoren maisua ez zen Pedro Viteri, joan zen astean argitaratutako artikuluaren goiko tituluan irakur zitekeen moduan, baizik D. Marcos Sagasti, hain zuzen, Jose Maria Azkarragaren biografiatua. 3. Felix Arano ez da artikuluari jarri zitzaion titulua ez zuen betetzen egileak nahi zuena, hots, Leibarren liburuan agertzen ez den Aranoren gaineko zehazkizun bat ematea. Artikuluaren egilearen helburua zen Maisu Aranoren lehen maisua zein izan zen argitzea, eta Maisu Aranoren aurreneko "irakas-betebeharrak" zeintzuk izan ziren jakinaraztea. Hori guztia Josemari Velez de Mendizabalen aitona liburuan irakurtzen da.

GOIENKARIA

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Badira zenbait abizen euskaldun, garai batean aldatu eta erdarazko kutsua hartu dutenak, edo euskal grafia errespetatzen ez dutenak. Batzuek beti ezagutu

dute horrela euren abizena idazteko modua eta bere horretan jarraitzen dute. Beste batzuek, ordea, nortasun agirian ere aldatu egin dute eta jatorrizko euskal grafia erres-

petatzeko ahalegina egin dute. Euskaltzaindiak zenbait gomendio ematen ditu horren inguruan, gero gehienetan norberak nahi duena egiten badu ere.

Abizenen idazkera: Euskaltzaindiak dioena zorrotz bete behar da?

Euskal deituren idazkerari buruzko gogoeta



MIKEL GORROTXATEGI
Euskaltzaindikoa
Onomastika batzordea

Euskarak ez du ofizialtasunik izan eta ondorioz deiturak gaur egun ulertzen ditugun moduan finkatu zirenetik hizkuntza arrotzetan idatzi behar izan ditugu euskaldunok, Hegoaldekoek gaztelaniaz eta Iparraldekoek frantsesez, sarri gaskoiaren idazkeratik harturik. Zorionez, Hegoaldean deiturak gure idazkera sisteman idazteko eskubidea dugu, nahiz eta guztiok horretaz jabetu edo agian arduratu ez.

Baina nork jotzen du epaitegietara deitura euskaratu nahian? %99an deituran euskarazkoa ez den grafema bat duenak: *C, CH, Q, gui, gue*, etab. Eta tamalez hor hasten dira komediak.

Tamalez, jende askok uste du deiturak euskaraz ematea gaztelaniazko bertsioari "euskal kutsua" ematea dela, nola bait "txapela jantzi" eta ez euskarazko izen jatorra berreskuratzea. Escoriaza edo Plencia deitura duenak ondotxo daki izen horien euskarazko izenak Eskoriatza eta Plentzia direla, baina norberaren deitura inork gutxi ezagutzen duen base-ri batekoa bada eta gaztelaniazko eta euskarazko izen artean ahoskera aldatuta dagoenean hasten dira komeriak.

Gogoan izan behar dugu euskarak badituela erdaraz ez dauden soinu batzuk, guk *ts, tz* eta *x* idazten ditugunak eta Eskoriaza edo Plencia idaztea onargarria ez den bezalaxe, ez dela onargarria Elgetako Ansoategi baserrian jatorria duen Ansoategui deitura Ansoategi idaztea, *ts>s* aldatuta ez baitu euskarak egin beste hizkuntza batek baizik. Gauza berbera gertatzen da Bizkaiko herria eta Arabako kontze-juak izendatzen duen Muxika deiturarekin. Etxe asko izan da izen horrekin eta deitura arrunta da Euskal Herrian, zori-tzarrez gaztelaniaz *-x* soinua desagertu zenean automatikoki Elexalde, Elexoste, Muxika, Arrexola, Lexarraga deiturek euskarazko *-x* galdu eta gaztelaniazko *j* hartu zuten, tokian tokiko jatorrizko ahoskera alde batera utzita.

Labur esanda, Euskaltzaindiak idazkerak proposatu zituen jatorrizko euskal ahoskerak ikertu zituen eta euskarari behar duen maila emateko ahoskera horiek islatzen dituen idazkerak proposatu, kanpoko hizkuntzak ezarritako aldatetako alde batera utzita.

"Askoren ustez, deiturak euskaraz ematea gaztelaniazko bertsioari 'euskal kutsua' ematea da"

Euskararen alde norberaren abizenetik hasita



JESUS ELORTZA
Herriarra

Jesus Elortza Olabe naiz ni, eta nire abizenak euskal grafiaz idazten ditut. Garai batean nire nortasun agirian Elorza eta Olave ziren nire abizenak. Baina *v* ez da euskal hizkia eta Elorza, tarteko *t* letrarik gabe idaztea ere abizenari erdal kutsua ematea da. Agiriak hala esan arren, abizen horiek ez zuten nire nortasuna adierazten. Horregatik, bi abizenak euskaldunak direlako, erabaki nuen karneteen aldatzea, edo behinik behin euskal grafiaz idaztea.

Abizen euskaldunak erdal grafiaz erabiltzen dituztenek euskaldundu egin beharko litzuketela uste dut, eta horretara animatuko nitzuke gainera. Euskara maite duen orok eta hizkuntza bultzatu nahi dutenek egin beharreko kontua dela iruditzen zait. Azken finean, abizenaren kontua idealekin batera doan gauza bat da, eta euskara defendatzen eta errespetatzen norbere etxetik hasi beharko ginateteke.

Askok erosotasun hutsagatik ez dute beraien abizena aldatu. Izan ere, nortasun agirian aldatuta egiteko erregistrora jo behar da, aurrez Euskaltzaindian agiriak eskatu... beraz, lan hori saihestearren bere horretan lagatzen dute abizena.

Maiz, beste hizkuntza batzuetan gaizki idazten ditugu hitzak. Hori onartezintzat jotzen bada, zergatik ontzat hartu euskal abizenak behar bezala ez idaztea? Beraz, hitz arruntekin bezalaxe izen propioekin ere errespetatu egin beharko litzateke idazkera egokia.

"Beti horrela izan da" esaldia erabiltzen du aitzakiatzat abizena idazteko modua aldatu nahi ez duenak, baina historian atzera eginez gero garbi geratuko litzateke garai baten Elortza eta Olabe idazten zutela gure aurrekoek. Zergatik bada aldatuta? Erregistroan jende erdaliduna zegoelako seguru aski eta norberak eskatu arren abizenak erdal grafiaz idazten zutelako.

Orain bada aukerarik Euskaltzaindiaren gomendioak jarraitu eta gure abizenen jatorrizko idazkerak berreskuratzeke, eta horretan euskara maite dugunok ahalegina egin beharko genuke.

"Askok erosotasun hutsagatik ez dute nortasun agirian abizena aldatzen, horrek lana baitakar"

HURRENGO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

Tren Azkarrarendako ibarrean geltokia eskatu dute. Zer iritzi?

Gora eta Behera

EMAKUMEEN MUNDU MARTXA



Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak Madrilgo Hetaira elkarteari eman zion joan den abenduan Rene Casin saria. Hetaira elkartearen sexu langileen giza eskubideak defendatzeko eta prostitutet jasaten duten bazterketaren aurka lan egiteko asmoz sortu zuten duela 9 urte.

URTE BERRIA, ARAZO ZAHARRAK



Espainian emakume bat hil zuen bere senarrak urte berriaren lehenengo egunean. Albanian, berriz, hogeita bat pertsona hil ziren itsasoan itota. Italiara ilegalki sartu nahi zuten immigrante albaniarrek ziren, antza. Urtea horrela hasi izanak oso ondo

islatu du gure gizarteko arazoa. Urte berrian ere badugu zertaz arduratu eta zerekin izan solidario.



PILAR ETXANIZ
Antzuolako Herri Ikastetxeko zuzendaria

Koplak

Merkealdia

Gabon garaia pasa da.
A zer nolako patxada!
Nuen dena xahutu dut baina
berriro noa dendara.

Zelako erokeria.
Aitor dezadan egia:
dudan apurra gastatu nahi dut
badator merkealdia.

Dendaraino urreratu
ta helburua finkatu:
nahi dudana ez erosi baina
behar ez dudana hartu.

Mila emakume arraro.
Ai! Inguratuta nago.
Aizu, jertse hau niretzako da,
nik ikusi dut lehenago.

Dena erosiko nuke
baina engainatu naute;
Soilik jertse ziztrin bat daramat
60 euron truke!

Beharpenak, bai zera!
Ez erostea hobe da.
Dirua alperrik bota dut gaur
eta banoa etxera!

MAITANE AZKARATE-ASKASUA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martínez, Izaskun Bolnaga,
Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Inazio Arregi

Podiuma

Iñaki Ugarteburu | ALDUNDIKO KIROL ZUZENDARIA |

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bergarako Udalean kirol teknikari lanetan jardun ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol zuzendari nagusia da egun. Probintziako eta ibarreko kirolaren egoeraz egin dugu berba Iñakirekin, lana dela eta oso gertutik ezagutzen baititu bai arazoak bai lorpenak ere.

Foru Aldundiko kirol zuzendari postutik begiratuta, nola ikusten duzu Gipuzkoako kirolaren egoera?

Kirol asko egiten da Gipuzkoan, arlo askotan gainera. Hau da, eskola kirolean, federatua, aisialdian... Eskaintza kalitatekoa eta ona da. Baina, toki gehienetan bezala, badago hobetzeko aukerarik. Horretarako arloko azterketa egin behar da.

Zein arlotan ikusten dira hutsunerik nabarmenenak?

Etorkizunari begira aldatea gehien kirol federatuaren arloan egin beharko da. Gizartearen kirolerako ohiturak aldatzen ari diren heinean, federazio batzuk egokitzen joan dira premia berriei erantzuteko; beste batzuk, ordea, motelago doaz. Beraz, hor erronka handia dago. Bestalde, boluntarioen premia eta horren inguruko arazoak daude. Boluntario berek urte askoan dihardute lanean, eta jende berria behar da horiei klubetan eta taldeetan errelebu emateko.

Berriki entzun dizugu kirola egiteko modua aldatzen ari dela. Zertan sumatu dituzu aldaketa handienak?


Batetik, eta orain dela gutxi, aldaketa ez bada ere, emakumea kirolean sartzea aldaketa nabarmena izan da. Batez ere kiroldegi eta gimnasioetan egiten den antolatutako kirol ekintzetan sartu dira emakumeak. Bestalde, gero eta gazte gehiagok jotzen du kirol praktika libreetara. Ondorioz, abentura kirolek, mendizaletasunak... arrakasta lortu dute eta lehian oinarritzen diren hainbat kirolen jaitsiera ikusi da parte-hartzaileen kopuruari dagokionez, eta hori arduratzeko modukoa da.

Bultzatzen dituzue kirol horiek erakundeetatik?

Kirol profesionala ez da Foru Aldundiaren ardura, ezta kiroldegietako edo zentro pribatuetako eskaintza ere. Baina eskola kirolean, adibidez, kirol aniztasuna bultzatu nahi dugu. Bestalde, hainbat kirol bultzada berezia ematen diegu, euskal pilotari eta herri kirolei, esaterako.

Zein arazo dira nagusi kirol arloan?

Kirol errealtate berrira moldatzeko premia eta boluntario eskasia dira problema handienak. Bestalde, Gipuzkoan kirol ekitaldi asko antolatzen badira ere, horiek koordinatzeko beha-



Iñaki Ugarteburuk hainbat hilabete egin ditu jadanik Foru Aldundiko kirol sailean.

“Gero eta gazte gehiagok jotzen du kirol praktika libreetara, eta lehian oinarritutako kirolen partaidetza jaitsi egin da”

“Debagoieneko oinarritzko kirol instalazioetan berrikuntzaren beharra nabarmena da, batez ere Bergarakoetan”

Kirola eta turismoa batera

Gipuzkoako Foru Aldundia Europako Turismo eta Kirol Sarearen lehendakaritzako partaide da. Sare horren helburu nagusia bere barnean dauden lurraldeetan kirol turismoa bultzatzea da. Hau da, herrialde batetik bestera doazen turistek lekuak ezagutzeko aukera emateaz gain, kirola egitea ahalbidetzea. Lehen urratsak iaz eman zituzten, eta aurtengo martxoan ipiniko dute proiektua abian. Plangintza honen bidez, Gipuzkoan egongo diren eskaintzak honako hauek dira: mendizaletasuna Goierri eta piraguismoa Txingudin eta Donostian.

Lehen urtea izanik, bi tokitara mugatu dituzte ekintzak, baina horrek ez du esan nahi Debagoieneko turismo mota hori bultzatu ezin daitekeenik. Esaterako, eskalada, mendi bizikleta, oinezko ibilbideak... Aukera asko ditu ibarrak. Kirol ekintzen bidez hainbat txoko promozionatzeaz gain, klubak bultzatzeko ere baliagarria izango da sare hau.

Beraz, gipuzkoarrok aukera izango dugu beste hainbat lurralde ezagutzeko, prezio onean eta, bide batez, baita kirola egiteko ere.

rra dago, eta horrek bere zailtasunak dauzka. Eskola kirolari dagokionez, nahiko ongi egituratuta dagoen arren, kalitatea hainbat arlotan hobetu beharra dago; agian arazotzat hartu behar ez bada ere, gure helburuen artean jarri dugu hobetzeko asmoa.

Eskola kirola aipatu duzue, egin duzue berrikuntzaren bat arlo horretan, ezta?

EAEko hiru lurraldeen artean ezberdintasun handiak daude eta esan daiteke Gipuzkoa aurreratua dela. Gipuzkoan Euskal Kirolaren Planak planteatzen duen eredura egokitu dugu eskola kirola, eta aldaketak egin behar izan ditugu eredu horretara moldatzeko. Nabarmena da futboleko eta saskibaloiko, esaterako, alebin mailatik aurrera neska-mutuek, kirol federatua lehian jarduteko aukera izatea. Beraz, espezializazioa lehenago hasiko litzateke klubak babespean lan eginez.

Boluntarioen eskasia arazo arloan aipatu duzu.

Gure asmoa boluntarioaren irudiari duintasuna ematea eta jende berria eta gazte erakartzea da. Horretarako, pizgarri batzuk eman beharko genituzke: udal zerbitzuetan kuotak murriztea, unibertsitaterako kredituak lortzeko aukera ematea...

Gipuzkoako kirolaz jardun dugu. Baina zein da ibarrean kirolaren egoera?

Gabezia bat azaltzekotan, goi mailako kirolak eza aipatuko nuke. Kirolari onak eta maila altukoak ditugu, baina puntapuntako talderik ez. Gainontzean, udal zerbitzuek lan ona egiten dute, baita klubek ere, eta eskaintza pribatua ere badago.

Eta kirol azpiegitura?

Oinarritzko instalazioetan berrikuntza beharra nabarmena da: Arrasaten pixkanaka egiten ari dira, Oñatin eta Aretxabaletan kiroldegiak handitzeko asmotan dabilta, eta Bergaran, esaterako, berrikuntza baino zerbait gehiago behar da. Bestalde, kirol zehatzen baterako instalazioen bat kokatu ahal izango litzateke bailaran. Golf zelaiaren adibidea hor dago. Inoiz belodromoaz hitz egin da, eta baita moto-kros zirkuituaz ere.

Zein dira kirol sailaren erronka nagusiak?

Batetik, kirol instalazioen plangintza jarri nahi dugu abian. Behin azterketa egin ostean diruz laguntzeko aukera badugu, horretan saiatuko gara. Bestalde, Gipuzkoako Kirol Kontseilua ere sortu nahi dugu. Aholku batzordea izango da eta non kirol arloko estamentu guztiek hartuko duten parte: klubetako eta elkarrekin ordezkariek, udal teknikariek, gimnasioetako ardura-dunek, federazioetakoek... Kontseiluan kirolaren inguruko gaiak eztabaidatuko dira.

Kirolabur

FUTBOLA/ARETXABALETA

Beñat Etxabe Realeko alebin mailako futbol jokalarari aretxabaletarrak Maspalomasen jokatu den futbol 7 torneoan hartu du parte. Talde berean jarduten duen Aitor Elorriagak ez zuen jokaterik izan, min hartuta zegoelako. Nazioarteko txapelketa honetan laugarren postua eskuratu du Realak; Bayer Leverkusenen aurka banako berdinketa egin ostean, penalti jaurtiketetan alemaniarrek nagusitu ziren. Torneoko irabazlea Bartzelona izan da; bigarren, berriz, Milango Inter.

ESKUBALOA/BERGARA

Iñaki Manuel bergararrak I gazte mailako Espainiako Kopa Txapelketa irabazi du, Euskadiko eskubaloiko selekzioarekin. Gabonetan, Madrilen, Euskadik jokaturako bost partiduak irabazi zituen eta finalean Galiziari nagusitu zitzaion. Iñaki Manuel txapelketako golegile nagusia izan zen, 24 golekin. Bergararra Arrate taldean ari da jokatzeko gaur egun.

FUTBOLA/ARRASATE

Eibar taldean jokatzeko duen Larratx Kortabarria arrasatear gazteak estreinako jardun du Euskal Selekzioarekin. Katalunian egin du debuta Kortabarria 17 urtez azpikoekin mailan, eta jokaturako bi partiduak irabazi ditu taldeak. Zaleen animurik ez zaie falta izan. Aipatzekoa da, gainera, Euskal Selekzioa osatu zuten jokalarietatik gehienak lehen aldia zutela taldean.

BATZOKIA
ARRASATEN

- Eguneko menuak. Baita zapatuetan ere!
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Brabak
- Olagarroa galiziar erara

Iturriotz 41
Tel.: 943 79 85 72

**Carrión
música, s.a.**

- Gitarak, baxuak, amplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitiak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:


- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Kantzerraren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18



Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88



Makina
Erremintaren
Institutua

Instituto de
Máquina
Herramienta

Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa 1
20870 ELGOIBAR

Gipuzkoa

Tel.: 943 74 82 64

Faxa: 943 74 41 53

ingenieria@imh.es

www.imh.es



cesi aquitaine
poitou-charentes



2004-2005 IKASTURTEA

TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA



BILERA INFORMATIBOA:

Urtarrilaren 21ean,
prestakuntzaren ezaugarriak eta
sarrera-baldintzak azaltzeko:

- 18:30ean Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioen bisita.
- 19:00etan bilera informatiboa.

- **Enpresarekin elkarlanean** garatutako lanbide-proiektua.
- **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik.
- **Emaitza erakargarriak:** gehiengoa lanean, %40 zuzendaritzako ardurekin.

MATRIKULA EPEA ZABALIK

Tipi-tapa aurrera egingo dugu.

Seme-alabentzako ametsetako leku batean pentsatzen dudanean, zera datorkit gogora: lankidetzaz, elkarbizitzaz eta berrikuntzaren bilatoki bat, eta garrantzitsuena pertsona izan dadila. Leku honetan seme-alabek, bertako profesionalek eta guk elkarrekin egiten dugu bidea, lehenengo urratsetatik. Eskutik helduta.



arizmendi@arizmendi.ikastola.net


Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 16a

Kultura
eta
aisialdia



Urtarrilaren
16tik 23ra

Ura, umeen lagun

Umeendako igeriketa ikastaroen arrakasta

Motrizitatea bizitzako lehen hilabeteotatik hasita garatzeko; erreflexuak bizkortzeko; urari beldurra kentzen hasteko; beste ume batzuekin eta gurasoekin batera jolasten ondo pasatzeko; laguntxo berriak egiteko... Horra hor igeriketa ikastaro goiztiarron abantailak batzuk, eta Debagoienean eskaintzen diren ikastarootan parte hartzen dutenek badute hori egiazatzeko aukera. Mundu osoko adituek aholkatzen dute umeoi hilabete gutxi batzuk dituztenetik igerian irakastea, edo, gutxienez, ura ezagut dezan aukera ematea. Ibarrean, Oñatiko kiroldegian ematen da holako ikastaroa, eta ibar osotik, eta baita inguruko beste herri batzuetatik ere, egunero joaten dira hara 6 hilabete eta 4 urte arteko umeak, eta aita-amak. /15

LEIRE KORTABARRIA



HEZKUNTZA/ BIZITZA HASIERATIK, URA LAGUN

Umezarotik, uretan jolastu eta ikasi

SEI HILABETETIK GORAKO UMEENDAKO IGERIKETA IKASTAROAK EMATEN DIRA DEBAGOIENEAN, OÑATIKO KIROLDEGIAN

LEIRE KORTABARRIA

Bizikletan eta zaldian ibiltzen eta igerian, behin ikasi ondoren, sekula ez da ahazten. Lehenengo bietarako gutxieneko adin bat dago, ordea, baina ez da hori gertatzen igeriketarekin; izan ere, ia-ia jaioberriak direnetik, umeok erraztasuna dute uretara moldatzeko.

Debagoieneko kirol zerbitzuek Oñatin eskaintzen dituzte umeondako igeriketa ikastaroak. Orain bi urte hasi ziren, eta arduradunek oso iritzi ona azaltzen dute. Erabiltzaileek ezin hobeto hartu dituzte ikastarook, eta parte-hartzearen inguruko datuek hala adierazten dute: 130 ume dabilta ikastarootan, 20 taldetan banatuta. Urte erdi dutenetik aurrera has daitezke umeak ikastaro honetan igerian, edo, gutxienez, uretan plisti-plasta jolasean ibiltzen. Hori bai, betiere, tenperatura eta giro baldintza egokietan, eta begiraleen gidaritzapean.

Ikastarootarako matrikulazioa irailean egiten da; taldeak ez badira betetzen, urtean barrena izena eman nahi dutenek beste aukera bat dute. Urte erditik bi urtera bitarteko umeak gurasoen besoetan ibiltzen dira igerilekuan, eta Mertxe Anduaga eta Xabier Murguzur irakasleek laguntzen diete gurasoei ariketa egokiak egiten umeekin. Bi urtetik aurrerakoak bakarrik ibiltzen dira begiraleekin.

USTE FALTSUAK

Askotan entzun dugu honakoa: ume jaioberri bat, edo hilabete gutxi dituen bat, uretara botaz gero, ez dela itotzen. Hori egia ala esamesa ote?: "Uretan luzaroan utziz gero, ito egingo da, jakina; baina ume jaioberriek erreflexu bat dute, glotisa itxi egiten dute eta urari sartzea galarazten diote. Gainera, ume oso txiki bat uretan uzten baduzu, joera da azalera irtetea", azaltzen du ikastaroko begirale Mertxe Anduagak.

Hortaz, egia da jaioberriekin urarekin familiartasuna dutela. Baina umeak denetariko erantzuna eman diezaioke urarekin lehenengo harremanari. Mertxek ohartarazten du: "Umea ohitu bada besoetan sarritan ibiltzen, edo gurasoek askotan izaten badute helduta, errazago beldurtuko da hasieran. Poliki-poliki ohituko da uretara".

Txikienekin, uretako jolasak eta ariketa umeak lantzen dituzte. Ur-azpian ere ibiltzen hasten dira, begiraleen besoetan. 3 urtetik aurrera has daitezke benetan



Ikastaroko ume bat begiralearekin igerian, Oñatin.

igerian ikasten: atzeraka igerian ikasten dute, eta baita ur-azpian euren kabuz ibiltzen ere.

GORPUTZERAKO ETA ADIMENERAKO ONA

Baina igerian ikastea ikastarororietako helburuetako bat bes-

terik ez da; izan ere, uretan ibiltzeak mesede handia egiten die hilabete gutxi dituzten umeoi. Mundu osoan, gero eta estimu handiagoa egiten diote mediku eta pediatrok umeendako igeriketari; AEBetan, Suitzan, Kanadan,



Flotagailu egokiak soilik

Oñatiko ikastaroon, begiraleekin eta aita-amekin ibiltzeaz gain, umetxook kolore askotako uretako jostailuak eta flotagailu bereziak erabiltzen dituzte. Jostailuak oso egokiak dira umeok uretan ondo pasatzeko. Baina flotagailuoi dagokionez, gurasoek kontuan hartu behar dute begiraleek emandakoak bakarrik erabil ditzaketela; edozein flotagailu ipintzea arriskutsua izan daiteke.

Espanian... arlo hori ikertzen diharduten erakundeak daude, eta aurkikuntza berriak egiten dira maiz.

Osasun fisikoari dagokionez, umeek giharrak indartzen dituzte, kirola egiten hasten dira modu suabean, motrizitatea hobetzen du eta erreflexuak jorratzen ditu. Arnas-aparatuarendako ere ona da igeriketa. Bestalde, guraso askok sumatuko dute loti txarrak diren umeek ohitura hobek hartzen dituztela eta errazago hartzen dituela loak. Ume urduriondako ere oso mesedegarria izan daiteke ikastaroa; izan ere, erlaxatzen ikasten dute eta umeok izaten duten energia handia jolasaren bidez askatzen ikasten dute. Azkenik, hobeto jatera ere ohitzen dira.

Hori, gorputzari dagokionez, baina beste onura batzuk ere baditu igeriketa goiztiarrak. Adituen esanetan, igerilekuan ibiltzeak umearen soziazialitatea hobetzen du; izan ere, bizitza hasieran bere adineko beste ume batzuekin ibiltzera ohitzen da, eta harreman modu berriak ikasten ditu; ez bakarrik laguntxo berriekin, baita gurasoekin eurokin ere.

Adituek diotenez, umeak gauza dira uretan naturaltasunez ibiltzeko egun gutxi batzuk dituztenetik aurrera. Oñatiko begiraleek esaten dutenez, igeri egiten ikastea askoz geroago dator; baina, 3 urterekin hasiz gero, oso denbora laburrean izan daitezke estiliz igeri egiteko gauza.

GURASOONDAKO GOMENDIOAK

Debagoianean, hortaz, Oñatiko igerilekuan dauden ikastarootan parte hartzeko aukera dute ume eta gurasoek. Baina umeak uraz gozatzeko aukera asko izango ditu. Hori dela-eta, gurasoondako aholkuak plazaratzen dituzte adituek.

Oso garrantzitsua da, Oñatiko begiraleek esaten dutenari jarraituaz, umeak ez uztea uretan bakarrik, umeak igerian jakinda jaiotzen diren ustean. Etxean, bainatzerakoan ere, kontuan hartu behar da hori: ume bat oso azkar ito daiteke, ur bolumena oso txikia izanda ere.


Gurasoak umearekin euren kabuz joaten badira igeri egitera, honako oharrak hartu behar dituzte kontuan, besteak beste: hondoak ikusten ez zaion igerilekutan ez sartzea; igerileku ertzetik edo tranpolinen batetik salto egiten ez uztea; arnasa kontrolatzen ikasi ez duten umeak ur azpian ez sartzea; eta umeari igerileku ertzean lasterka egiten ez uztea.



NEREA

ALABA: EIDER, 14 HILABETE


Joan zen urritik hona gatoz herriko igerilekuotara, ikastaro honetara. Oso-oso pozik nago; izan ere, umea oso gustura dabilela nabaritzen dut. Gehien sumatu dudana da lo hobeto egiten duela; lur jota amaitzen du eta berehala lokartzen da.



CESAR

ALABA: LAIDA, 18 HILABETE

Urritik hona gabiltza ikastaro honetan. Umea oso ondo moldatu da uretara, eta hemen laguntxo berriak ere egin ditu. Oraindik beldur pixka bat dio irakasleari, baina horretara ere badoa ohitzen, pixkana-pixkana.



MARI ASUN

SEMEA: OIER, 20 HILABETE

Legazpitik etortzen gara biok lastero, joan den irailetik hona. Hasieran, negar asko egiten zuen umeak, baina orain, bistan da neurria hartu diola urari eta gustura ibiltzen dela jolasean. Ondo pasatzen dugu biok igerilekuan.

IKASTAROAK / ARATUSTEEI BEGIRA, EUSKAL DANTZA IKASTAROAK ANTOLATU DITUZTE

NIREAUKERA

Mozorroitu eta dantzara

ARATUSTEETAN OÑATZ ETA OINARIN-EKIN DANTZATZEKO AUKERA DUTE OÑATIARREK ETA ANTZUOLARREK

USOA AGIRRE

Aratusteetarako hilabete gelditzen da oraindik, baina Oñati eta Antzuolan hasi dira dagoeneko egun horietarako dantzak prestatzen. Oñatiko Oñatz eta Antzuolako Oinarin dantza taldeek Aratusteetan beraiekin batera dantza egiteko dei egin die herritar guztiei.

Oñatiko eta Antzuolako dantza taldeek urtero antolatzen dute herritarrei zabalduetako Aratuste dantza saio bat. Urtero dantza ezberdin bat egiten dute, eta, horrela, dantza taldeko partaide ez diren herritarrek ere euskal dantzak ikasteko aukera izaten dute. Aurtengo Aratusteetan Iparraldeko Jauziak dantza egingo dute Oñatin eta Antzuolan, berriz, Txarri dantza plazaratuko dute Oinarin dantza taldekoek eta parte hartu nahi duten herritarrek.

IKASTEN ERRAZA

Oñatz taldeko Jesus Irizar arduradunak azaldu duenez, Iparraldeko Jauziak dantza ikasteko erraza da; oinarriko urratsak azkar ikas daitezke. Beraz, lehenetik euskal dantzarik egin ez duenak ere erraz ikasteko moduko dantza da.

Uztaritzen egiten dute Jauziak dantza Aratusteetan. Jatorriz, koreografia oso batekin egiten dute, hainbat dantza batuta. Dantza horien artean makila jokoa egiten dituzte. Dantzan hasi aurretik antzezpina egiten dute eta bospasei musikarik ere esku hartzen dute.



Lantzeko Inauteriak irudikatu zituzten duela bi urte Antzuolan.

Urtarrilaren 10ean, zapatua, hasi zituzten entseguak Oñatin. Oñatz taldeak Errekalden duen egoitzan egiten dituzte entseguak, zapaturo, 12:00etan, eta martitzenero, 20:00etan. Bat egin gura duenak bertara joan besterik ez du. Dantza emanaldia bera otsailaren 21ean izango da.

TXARRI DANTZA ANTZUOLAN


Antzuolako Oinarin dantza taldekoek, berriz, Arrasateko Txa-

rrri dantza aukeratu dute aurtengo Aratusteetarako. Santamas jaietan egiten dute arrasatearrek dantza hori, eta, Oinarin dantza taldekoek esan dutenez, ikasten erraza da.

Oñatin ez bezala, Aratuste domekan irteten dira antzuolarrak dantzan kalera. Aurten, otsailaren 22a izango da egun hori. Txarri dantzarekin batera urteroko Sorgin dantza ere egingo dute hainbat herritarrek. Urte-

ro jende ugari erakartzen du Sorgin dantzak, eta, umorezko dantza denez, barre egiteko aukera paregabea izaten da.

Txarri dantza ikasteko entseguak datorren martitzenero, hilak 20, hasiko dira. Martitzenero, iluntzeko 20:00etan egingo dituzte entseguak, Oinarin dantza taldeak Eguzki auzoan duen edozein hurbil daiteke Txarri dantza ikasteko entseguetara.



'EL CÓDIGO DA VINCI' Dan Brown

Zer irakurtzeari dagokionez, ez naiz erraz konformatzekoa; izan ere, estilo guztietako liburuak irakurtzen ditut gustura, baina liburu batek hasieratik harrapatu behar nau interesez irakur dezadan. Egunotan, oso gustura irakurtzen ari naiz *El código Da Vinci* delako eleberria, Dan Brown estatu-batuarrarena, eta horixe gomendatuko nioke edozeini. Misteriozko eta intrigazko istorioa da. Leonardo Da Vinciren artelanak, gertakizun historikoak eta kristautasunaren historia ditu oinarri, baina, funtsean, misterioa eta intriga dira ardatza, eta horrek harrapatu nau, batik bat. /L.K.



Mikel Araiztegi

Bergararra, 48 urte. Margolaria da; Eibarko Topalekuan erakusketa du egunotan.

GARAPEN OSATZEN DUGUN AGENTZIEK ZURE ESKU JARTZEN DUGU:



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Garapen

GARAPEN AGENTZIA
EUSKAL ELKARTEA
ASOCIACION VASCA
DE AGENCIAS DE DESARROLLO



Europako Gizarte Fonda
Fondo Social Europeo



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTITIA, LAN ETA GIZARTEN
SEGURITATEA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

ENPRESAK SORTZEKO IKASTAROA SAREAN (Bertaratzea eskatzen ez duen ikastaroa)

HELBURUAK

- ◆ Pertsona ekintzaileak trebatzea, beren enpresa ideia aztertu ahal izan dezaten.
- ◆ Nork bere enpresa sortzeko beharrezko ezagutzak eskaintzea.

EDUKIAK

- ◆ Sustatzailea eta ideia.
- ◆ Merkatuaren analisia.
- ◆ Enpresaren bilakaera. AMIA analisia.
- ◆ Estrategiak.
- ◆ Mix marketineko estrategiak.
- ◆ Antolakuntza eta giza baliabideak.
- ◆ Legezztatzea eta abiaraztea.
- ◆ Bideragarritasun finantzarioaren azterketa.

NORENTZAT

Hainbat arrazoiengatik, bertaratzea eskatzen duten ikastaroetara joateko zailtasunak dituzten enpresa-sustatzaileentzat.

BALDINTZAK

Ordenagailu pertsonala eta Interneterako konexioa edukitzea.

HASIERA

Ikastaroa martxoaren 1ean hasiko da.

IZENEMATEA

Doakoa. 2004ko urtarrilaren 23ra arte. www.lanbide.net

Informazio zabalagoa

902 23 66 66

www.lanbide.net

www.garapen.net

Urtarrilak 16-23

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ANTZERKIA

ARRASATE

► **El feeling es así** antzezlanaren egongo da etzi, domeka, gaztetxean, 18:30etan.

► **Cabaret latino** antzezlanaren eskainiko du Txalo taldeak etzi, domeka, Amaia Udál Antzokian, 19:30etan.

BERGARA

► **Estrellas fugaces** antzezlanaren eskainiko dute Aitor Gonzalez Luna eta Victor Amilibiak bihar, zapatua, 00:00etan.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Imsersoko bainuetxe programan** izena emateko epea zabalik dago hilaren 23ra arte, udaletxean.

ARETXABALETA

► **Euskal historiaren mugarrin** inguruko berbaldia egingo du Tomas Urtzainki historialariak urtarrilaren 22an, eguena, Kurtzebarri eskolan, 19:00etan.

► **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoek *Poxpolin Marisorgin* ikuskizun berria eskainiko diete herriko ume eta gaztetxoek urtarrilaren 24an, zapatua.

Sarrerak salgai daude Algara ludotekan, kirol etxean eta kultura etxean, 3 euroren truke.

ARRASATE

► **Arrasateko II. Flamenko Kante lehiaketako** hirugarren kanporaketa jokatu da bihar, zapatua, Al-Andalus elkartearen egoitzan, 23:00etan.

Gasteiz, Abadiño, Malaga, Almeria eta Cadizetik etorritako kantariak esku hartuko dute. Nahi duen orok joan ahal izango du publiko moduan.

► **Pirinioetara asteburuko irteerak** antolatatu ditu Besaide mendi elkarteko eski sailak. Bihar eta etzi izango da lehenengoa. Argibide gehiagorako, jo Besaideren egoitzara (Garibai kalea 3, behe), astelehen, martitzen edo eguaztenetan, 18:30-19:30. Edo honako telefonora dei dezakezue: 943 77 30 66.

► **Gabonak pasa dira eta orain elikadura zaintzea nahiko nuke: nola egin?** delako hitzaldia egingo du Leire Ezkurra adituak hilaren 21ean, eguaztena, Musakolako gunean (Maisu Aranbarri 4, behe), 15:00etan.

BERGARA

► **Ilatargi astronomia taldea** urtarrilaren 23an elkartuko da, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan. Eguraldi ona badago, Gorlara joango dira ikusketa egitera; bestela, solasaldia izango dute. Nahi duen orok har dezake parte.

► **Hire Himalaya** ikus-entzunezkoaz gozatzeko aukera izango da datorren

egunean, hilak 22, Novedades aretoan, 20:00etan, Alberto Iñurrategi mendizalearen eskutik.

► **1956an jaiotakoek** afaria egingo dute urtarrilaren 31n Azpeitxi jatetxean. Izena emateko, deitu Azpeitxi jatetxera (943 76 55 00). Urtarrilaren 25a duzue mugaeguna.

ESKORIATZA

► **Neguan sasoiaren egoteko aholkuak** delako berbaldia egingo du Mari Jose Pagaldai adituak eguaztenetan, hilak 21, kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI

► **Aratusteetan dantza egiteko** ikastaroa deitu du Oñatz dantza taldeak. Aurten, Jauziak dantza egingo dute otsailaren 21ean. Ikasi gura duen guztiak entseguetan parte hartzeko aukera izango du: Oñatzek Errekalden duen egoitzan izango dira, martitzenetan, 20:00etan, eta zapatuetan, 12:00etan.

► **Bernedo-San Tirso-Kripan** mendi irteera egingo du Aloña Mendi taldeak hilaren 25ean, eta izena emateko mugaeguna urtarrilaren 21a da, eguaztena, Aloña Mendi tabernan.

MUSIKA

ANTZUOLA

► **Txistu kontzertua** egongo da etzi, domeka, udaletxean. Mezaren ondoren izango da emanaldia, eguerdian.

ARRASATE

► **Arrasate Musikaleko txistulari talde ertainak eta txistulari bandak** kontzertua eskainiko dute etzi, domeka, udaletxeko areto nagusian, 12:30etan.

BERGARA

► **Julia Ruiz sopranoaren eta Miguel Bernal organo jotzailearen** kontzertua egongo da bihar, zapatua, San Pedro parrokiaren, 20:00etan. Bergara, Azkoitia eta Azpeitiko udalek antolatutako Organo Erromantikoaren Nazioarteko V. Zikloko kontzertuetako bat dugu hau.

ELGETA

► **Ostiada oi, Hell beer boys, Des-kontrol, Kalekumeak, Never surrender eta Jony Gerriwelt**

taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 18:00etan. Sarrera 3 euro kostatuko da, eta 200 litro garagardo doan banatuko dituzte antolatzaileek.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Sahararen gaineko erakusketa** dago Monterrongo kultura etxean gaur arte, egubakoitza. Hain justu ere, Marokok hartuta dituen lurraldeen gaineko argazkiak ikusi eta informazioa jaso ahal izango da. Euskal Fondoak eta Saharako Koordinazio Unitateak (SKU) antolatu dute.

BERGARA

► **Joe Jimenez** margolari mendarotarraren erakusketa bisitatzeko aukera dago Masterreka kaleko Nahikari tabernan, hil bukaerara arte. Tamaina ertaineko hamar olio lan aurkezten ditu Jimenezek, azken bi urteotan egindakoak. Aurretik, bakarrik Eibarren erakutsi ditu lanak.



► EKITALDIK

ESPAINIAKO GERRAREN ERAGINA GOGORA EKARTZEKO EKINTZAK

Gerra zibila Euskal Herrian izenburuarekin, Espainiako gerraren eragina gogora ekartzeko hainbat ekitaldi antolatatu ditu Antzuolako Udalak. Ekintza nagusiak erakusketa bat, hitzaldi bat eta kantaldi bat izango dira. Erakusketa hilaren 22an inauguratuko dute, datorren egunean, Orlan etxean. Jantxo Agirre Arantzadi elkarteko idazkari eta Eusko Ikaskuntzako arkeologia saileko presidentek hitzaldia egingo du, 18:30etan. Erakusketa Sabino Arana kultura elkargoaren, Deba-goieneko Fusilatuen Lagun eta Senideen batzordearen eta Antzuolako EAJen laguntzarekin antolatuko dute. Bestalde, urtarrilaren 25ean, domeka, Joseba Tapiak *Agur Intxorta maite: 1936-39 gudako kantuak* izeneko kantu emanaldia egingo du.

Non: Antzuolako Orlan etxean. **Noiz:** urtarrilaren 22tik otsailaren 1era, erakusketa; urtarrilaren 25ean, kantaldia.



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES

gu aurrera zurekin batera

GRADUATU ONDOKO programa

2003-2004 kurtsoa

ISM-MSI- Enpresetarako ERP informazio-sistematan masterra

HELBURUA

Partaideei Enpresa Kudeaketarako Teknologia Berriak erabiltzeko gaitasuna ematea, Informazio Sistemen prozesuak optimizatuz, BaaN-ERP tresnen eta e-business teknologien bitartez.

IKASGAIAK

1.- Proiektuen Kudeaketa	6.- Software-aren pertsonalizazioa (SQL programazioa, BAAN TOOLS)
2.- Ekonomia eta Finantza Esparrua	7.- E-business teknologiak (CRM, SCM, B2C, B2B, e-procurement, ...)
3.- Salmentak eta Merkataritza Kudeaketa	8.- Azken proiektua eta praktikak enpresetan
4.- Hornikuntza eta Logistika	
5.- Produktzio-esparru funtzionala	

EGUTEGIA

- Ikasturtea: 2004ko otsailaren 19tik 2004ko abenduaren 17ra
- Ordutegia: ostegunetan 14,30etatik 19,30etara eta ostiraletan 9,00etatik 13,00etara eta 14,30etatik 19,30etara
- Izen-emateko epea: 2004ko otsailaren 13ra arte

ENPRESA LAGUNTZAILEAK

MCC	FAGOR TALDEA	WATERMARK
CAF	ULMA TALDEA	IKUSI
GAMESA	STERIA	BAAN COMPANY

INFORMAZIOA: Enpresa Zientzien Fakultatea
Larraña 16, 20560 Oñati
Tfnoa: 943 71 80 09 • Faxa: 943 71 81 62

www.eteo.mondragon.edu • msi@eteo.mondragon.edu



Nora Sanchez, iazko azkena
Aurreko astean esan genizuen arren Eider Gomez eskoriatzarra izan zela Debagoienean 2003an jaiotako azkeneko umea, oker eman ziguten informazioa Debagoieneko Eskualde Ospitalean. Minutu batzuk beranduago jaio zen Nora Sanchez arrasatearra. Abenduaren 31n jaio zen Nora eta 2,780 kilo pisatu zuen. Rafa Sanchez eta Justi Sanchez dira Noraren gurasoak. Argazkian, umea amarekin eta Nahia eta Maria lehengusinekin ikus dezakegu.




Lander Rejano Molina
Bergara • Urtarrilaren 7a • 3,060 Kg. • Gurasoak: **Fran Rejano** (Bergara) eta **Arantza Molina** (Bergara). Argazkian, umea gurasoekin.




Andoni Pereira Igartua
Antzuola • Antzuola • 3,380 Kg. • Gurasoak: **Eduardo Pereira** (Bergara) eta **Esther Igartua** (Bergara). Argazkian, umea gurasoekin.




Libe Zuazabeitia Murua
Leintz-Gatzaga • Urtarrilaren 8a • 2,940 Kg. • Gurasoak: **Jon Zuazabeitia** (Aretxabaleta) eta **Nerea Murua** (Arrasate). Argazkian, Libe gurasoekin.



Ibai Moiuva Reinstadler
Oñati • Urtarrilaren 7a • 4,160 Kg. • Gurasoak: **Eli Reinstadler** (Oñati) eta **Ander Moiuva** (Oñati). Argazkian, umea bere anaia-rekin.




Gorka Armendia Zallo
Arrasate • Urtarrilaren 9a • 3,400 Kg. • Gurasoak: **Jon Armendia** (Arrasate) eta **Nerea Zallo** (Arrasate). Argazkian, umea aitaren besoetan.



Eneritz Kortabarria Elortza
Aramaio • Urtarrilaren 10a • 3 Kg. • Gurasoak: **Jon Kortabarria** (Aramaio) eta **Mertxe Elortza** (Legazpi). Argazkian, umea aita-rekin.



Iraia Lopez Blanco
Arrasate • Urtarrilaren 13a • Gurasoak: **Jose Ignacio Lopez** (Arrasate) eta **Paqui Blanco** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



Ekhi Arzak Aperribai
Bergara • Urtarrilaren 13a • Gurasoak: **Nerea Aperribai** (Bergara) eta **Xabi Arzak** (Donostia). Argazkian, jaioberria aitaren besoetan.



Lourdes Urkia eta Juan Luis Agirre aretxabaletarrek 25 urte bete dituzte ezkontuta. 1979ko urtarrilaren 13an, hain zuzen ere, ezkondu ziren Aretxabaletako Aozaratza auzoan. Bihar, zapatua, ospatuko dituzte zilarrezko ezteiak. Zorionak, bikote, familiaren partez!

HILDAKOAK

Petra Berdote Mangas. Arrasaten, abenduaren 26an. 67 urte.
Elena Arregi Iregi. Arrasaten, abenduaren 28an. 94 urte.
Sebastiana Gonzalez Elices. Arrasaten, urtarrilaren 1ean. 60 urte.
Juan Pablo Bolinaga Ingidua. Arrasaten, urtarrilaren 4an. 90 urte.
Joakin Mujika Loidi. Oñatin, urtarrilaren 5ean. 67 urte.
Consuelo Delgado Sanchez. Arrasaten, urtarrilaren 6an. 90 urte.
Manuel Egibar Arieta-Araubeña. Bergaran, 6an. 63 urte.
Juan M. Idigoras Arregi. Aretxabaletan, urtarrilaren 6an. 61 urte.
Maria Josefa Gabilondo Aizpitarte. Arrasaten, 7an. 89 urte.
Maria Luisa Biain Uriarte. Bergaran, urtarrilaren 9an. 80 urte.
Pedro Lete Jausoro. Arrasaten, urtarrilaren 10ean. 76 urte.
Segunda Santorcuato Lizarralde. Bergaran, 10ean. 99 urte.

ESKELA

Josefa Arana Astigarraga

Karidadeko lekaima

Gironan hil zen 2004ko urtarrilaren 10ean, 93 urte zituela.

Haren aldeko meza zapatuan, urtarrilaren 17an, 13:00etan Bergarako Santa Marina parrokian.



Haren ahizpa: Maria eta Kristina (karidadekoa); koinatu-koinata: Roman Igarza eta Irene Madariaga (Julio Aranaren alarguna); iloba: Itziar, Fernando, Maribel, Juan Antonio, Josune eta Jabi; eta gainerako senideen izenean:

Aldez aurretik eskerrik asko, elizkizunetara joango zaretenoi.

ESKER ONA

Maria Luisa Biain Uriarte

Bergaran hil zen 2004ko urtarrilaren 9an, 80 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Maria Kruz Roman Perez de Albeniz

Bergaran hil zen 2004ko urtarrilaren 2an, 95 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Elisabet Arzelus Fernandez de Arroiabe

Bergaran hil zen 2004ko urtarrilaren 5ean, 77 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Leon Madinabeitia Olalde

Arrasaten hil zen 2003ko abenduaren 31n, 77 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Bittore Umerez Guridi

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 18an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztirik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Ibonne Gomez Gutierrez

Domingo Irazolaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 18an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztirik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Silvia Mayo Fernandez

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 18an, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztirik eskerrik asko sendikoen izenean.

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Argazki-koaderno	▼	Ezerez, apurkeria	▼	Kontinenterik handiena
	Pozkorra, alegera	▶	Ar sortzaileak	▼	▼
	Apar	▶			
	Diru truke lortu	▶			
* Izena	Heldu, oratu	▶			
Bolboraz baliatzen den arma	Trebeak	▶			
		▼			Area
					Argia pasatzen ez du uzten
Garai, denbora			Nongo atzizkia	▶	Arrainak edukitzeko ontzi
Errege nafarra			Basamortuko zelai	▶	
			Haur hizk, musu	▶	
			Mirespen handia	▶	
Fidelak					
Daukat					
			Lehor	▶	
			Tona	▶	
Iskanbila					
Maiz, sarritan					
			Urrearen ikurra	▶	Roentgen
			Zaren hori	▶	Bigarren bokala
* Deitura	Zerez atzizkia	▶	Pepe ..., kazetaria	▶	
	Bat	▶	Kontsonantea	▶	
					Oxigenoa

BILABILA7



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

ERROGATIBAK

Markiña aldian errogatibak eixera zoiazen Jainkoari eurixa eskatzeko. Esandako orduan, agertu da abadia, ta ikusi zebanian iñok ez zaroiala guardasolik, esatetse:
- Fuera! Danok etxera!
Zuek eztaukazue federik. Fedia euki bazenduen, atarkiñekin etorriko ziñazien. Fede barik alperrik dira errogatibak!

ALDATZ BERA VUELTA FRANTZIAN

Vuelta Frantzia korritzen zan egun aietan. Gilanian, maixan jarrita txirrinduzale mordoxka bat zegoan

AS errebia aurrian zeukela. Koloroetako orri asko agertzen ziran Vuelto pasadizoak kontatzen. Erdierdikian an ikusten zan ziklista pilla aundi bat. Pelotoian zoiazen. Errebia ikusten zebizen danak arritxuta geratu ziran fotografixa arekin. An zegoan Markox be, tette, adurra darixola, txirrindulari pillo ura ikusten. Batek esan zeban:

- Onek, goruntz ala beruntz joiazak?
- Orrek? Beruntz, esan eban Markoxek.
- Zelan dakik ori?
- Pedalari emon barik joiaak-eta!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Zeintzuk daude ez dagokien herrian kokatuta?

Hona hemen Debagoieneko lau baserri-auzo lau herritan kokatuta. Horieta bi gaizki daude. Asmatuko ote zenuke zeintzuk?

- Ubera, Elgetakoa.
- Galartza, Aretxabaletakoa.
- Bedoña, Aretxabaleta.
- Apotzaga, Eskoriatzakoa.

eta Bedoña Aretxabaletan.
Erantzun zuzena: Lehengoa eta hirugarrena. Ubera Bergaran dago

SOLUZIOAK



O	•	A	N	U	K	I	B
I	E	R	•	Z	A	•	•
R	•	U	A	•	U	S	U
A	•	U	L	I	S	I	•
U	•	K	I	S	•	T	D
K	•	A	L	A	L	E	•
A	•	P	•	O	S	T	A
•	O	K	•	O	A	R	•
A	•	A	M	A	R	U	S
I	•	S	I	•	•	•	•
S	•	I	T	•	•	•	•
A	•	L	A	I	A	•	•
•	•	F	•	A	•	•	•

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Arazoak izango dituzu familiartekoein, haiekin oso jenio biziz jokatzeko duzulako. Horrek hausturak eragin litzake. Bestalde, atzerrian dituzun inbertsio eta negozioak geldidau, gaizki kudeatu dituzulako.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Lana garrantzitsua da, bai, baina lanaz gain beste hainbat gauza ere badaude; besteak beste, zure zaletasunak, lagunak eta, zelan ez, familia.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Eskarmentu handikoa zara, eta erraz konturatu zara zure inguruan dabilen jendea zelakoa den; izan ere, askok zure lana boikotatu gura izango dute.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Familiartean zaudenean, joera handia duzu aspaldiko kontu ilunak azalartzeko, eta horrek min handia egiten die familiarteko batzuei. Bestalde, ez da garai egokia inbertsioak egiteko.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Mailegu eske bazabiltza, ez dituzte emango, ez duzu-eta nahiko diru bankuan. Bestalde, seme-alabekin oso harreman ona izango duzu, eta oso aholku mesedegarriak emango dizkiezu.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Ez doa zure izaerarekin bat, baina oraingo astean erabaki presazkoak hartuko dituzu, erabaki okerrak askotan. Edozelan ere, zortea alde izango duzu, eta ondorioak ez dira negatiboak izango.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Hainbat aldaketa egin beharko dituzu, gogoz kontrara, baina betiere egin beharrekoak. Bestalde, lanari dagokionez, aurrera egin gura baduzu birziklatze ikastaroren bat egin beharko duzu.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Dena espero duzu harremanez, eta azkenean desengainua izaten duzu. Hortaz, ahalegin zaitz hain zorrotz ez izaten eta bakoitza den bezala onartzen.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Ahal duzuna baino gehiago egin gura izango duzu, eta azkenean estu eta larri ibiliko zara. Horrenbestez, egiten dituzun jarduerak guztietatik, baten bat alde batera utzi beharko duzu.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Ohi baino aurreztaileago ibiliko zara; are gehiago, jarrera xuhurra izango duzu. Seme-alabak kexatu egingo dira, euren gastuak kontrolatzen ahaleginduko zara-eta.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20




Oraingo astean zure alderdi ludiko eta sentsualena aterako duzu, eta buruan disfrutatzea bakarrik izango duzu. Bestalde, hainbat maitasun-harreman izan zenitzake, eta oso neska/mutil berezi bat topatu ere bai.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Zure ideiekin buru-belarri egiten duzu aurrera, eta ingurukoak ez dituzu kontuan hartzen. Hortaz, entzun itzazu ingurukoen proposamenak, oso gauza garrantzitsuak ekar lezakete-eta.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Aktiba Txartela

EUSKADIKO KUTXA



Abantaila bat 7 egun zure alde



Urteko kuota

6€

besterik ez

Eskatu **Aktiba txartela**,
lasai-lasai ordaindu eta
erabat kontrolatu asteko
erosketak

Abantaila nagusiak:

- Zure gastuak erabat kontrolatuko dituzu, kontuan asteartero kargatuko dizkizugu eta
- Informazio xehatua jasoko duzu, asteroko laburpenean erosketa zordunketarekin lotu ahal izateko
- Sari seguruak arinago, Travel Puntuak jasoko baitituzu
 - Erosketa Aktiba txartelarekin ordaintzearen eta
 - Travel Programari atxikitako saltokietan erostearren
- Kutxazainetan kontuko saldoaren kontra dirua ateratzeko, telefono mugikorra kargatzeko, finantza-kontsultak egiteko eta abarretarako aukera izango duzu
- Internet bidezko banka (Caja Laboral Net) eta telefono bidezko banka (Telebanka) erabili ahal izango dituzu
- Lasaitasun handiagoa:
 - Istripu Asegurua kosturik gabe
 - Maulazko erabileraren kontrako Asegurua, txartela galdu edo lapurtuz gero
- 25 milioi saltoki eta 700.000 kutxazain baino gehiagotan erabil dezakezu mundu osoan


04-01-01ean indarrean egongo diren baldintzak



Informazio gehiagorako, Euskadiko Kutxaren sukurtsalak,
901 333 444 edo www.cajalaboral.com

Zurekin elkarlanean


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Astebete

EGUBAKOITZA 16 / 20:30 eta 22:30



Iragana gogoratuz

MARTITZENA 20 / 20:30 eta 22:30



Lanabesak

MARTITZENA 20 / 21:15 eta 23:15



Iluntzean

EGUENA 22 / 21:15 eta 23:15

'Astebete' saioa, denboraldiko sagardoaren usainean

Sagardotegien denboraldia ireki da aste honetan, eta upel artean murgilduko da *Astebete* saioa. Migeltxo Zapiainek aurtengo sagardoaren nondik norakoak azalduko ditu. Aramaioko irekiera festako irudiak ere bilduko ditu saioak.

Basoko lanbideen ingurukoa izango da lehenengo saioa

Goienak eta Fagorrek elkarlanean egindako lehenengo saioak basoko lanbideak izango ditu oinarri. Ikazkinek zelan lan egiten zuten, karobietan karea zelan egiten zuten eta elurzuloak zertarako egiten zituzten kontatuko dizuegu.

Energia aurrezten duen etxebizitza ekologikoa

Eguzkiaren energia aprobetxatzen duen etxebizitza ekologikoa ezagutuko dugu *Lanabes* saioan. Arabako Legutiano herrian dago ezaugarri hori betetzen duen Euskal Herriko aurreneko etxebizitza. Ideia, berriz, Alemaniatik dator.

Aitor Lopez Rekarterekin berbetan Aintzane Gardoki

Relakeo kapitainetako bat, Aitor Lopez Rekartek, *Iluntzean* saioan izango dugu datorren egunean, urtarrilaren 22an. Futbolari buruz ez ezik, oro har, bizitzari buruz eta beste hainbat konturi buruz jardungo du arrasatearrak.

TELEBERRIAK

'Martin' telesailaren atal berriak izango ditugu ETB1en

Joan den astelehenean hasi ziren 'Martin' telesaileko atal berriak ematen. Jose Ramon Soroziz eta Elena Irureta protagonista dituen telesailak arrakasta handia izan du ikusleen artean, eta atal berriekin ere arrakasta horri eutsi nahi diote. Astelehenero, gaueko 22:30ean, izango dugu hitzordua Martin eta haren familiarekin ETB1en.

Espainiako bost etxetatik batek du ordainpeko telebista

Konkretuki Espainiako etxeen %19,2tan dute ordainpeko telebista zerbitzua kontratatuta eta hilean 26,4 euro gastatzen dituzte, batez beste. 2003ko uztailetik irailera bitartean Espainiako Gobernuak egin zuen ikerketaren emaitzak dira. Ikerketaren arabera, satellite bidezko telebista digitala da kontratatuena (%39), eta ondoren dago kable bidezkoa (%34,3).

'Gran Hermano vip' estreinatuko du T5 kateak ostegunean

Gran Hermano lehiaketaren bosgarren edizioa amaitu berri den honetan, *Gran Hermano vip* jarriko du martxan T5ek. *Hotel Glam*-en moduan, hemen ere telebistako ezagunak eta prentsa arrosan agertzen direnak izango dira lehiakideak. Iturri batzuen arabera, Mari Cielo Pajares eta Marlene Mourreau izan daitezke lehiakideetako bi, baina oraindik zehazteke dago hori. Hilaren 22an estreinatuko dute lehiaketa.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Urtarrilaren 16tik 22ra

EGUBAKOITZA 16	ZAPATUA 17	DOMEKA 18	ASTELEHENA 19	MARTITZENA 20	EGUAZTENA 21	EGUENA 22
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Herriz herri: Eskoriatza 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Ainhoa Aierbe 17:00 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Herriz herri: Eskoriatza 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Ainhoa Aierbe 17:00 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Iragana gogoratuz 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Iragana gogoratuz 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Lanabesak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera
19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera			19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Iragana gogoratuz 21:00 Gaurkoak 21:15 Lanabesak 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Iragana gogoratuz 23:00 Gaurkoak 23:15 Lanabesak 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
20:30 Astebete			21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Iragana gogoratuz	20:30 Txintxaun	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefona: 943 71 23 95

KAMERA AURREAN



"Antzerkia zuzeneko da, jendea hor duzu, parez pare, eta ez dakizu nola erreakzionatuko duen. Orduan, telebistan ez bezala, nahiko urduri jartzen naiz"

Ainhoa Aierbe / Aktorea
BERRIAK (2004/01/14)



"Oñatiko Udalak ez du asmatu, edo bestela, herrian antzerkirako joera ez dugu gorpuztu. Edonola ere, inguruko herrietako panorama ere antzerakoa da"

Ernesto Murgiondo / Kultura zinegotzia
BERRIAK (2004/01/14)

TELEBEGI / Edorta Arana

3-2-1


Jakingura banuen *Undostres* berria nolako ote zen. Eta, ikusi eta gero, aitortu beharra daukat lizun usain itzela hartu niola Chicho Ibañezen programa klasikoari. Aurkezlearen zirku-aurkezle jarioak, galdera-erantzunen jokoak, enkanteak, esketxen teatralizazioak, sariak, sintoniak, errealizazioak... Denak zuen iragan denboraren kutsua. Aro berriko lehen saioa besterik ez zela izan esango du norbaitek, itxoin beharra dagoela, eskua hartuko diola berriro ere, Espainiako Estatuko lehiaketa-eredu esportagarriena izan dela, Chicho Ibañez telebista-maisua dela... gura duzue; nik kanalez aldatu nuen. Eta hor dezepzioa ikara bilakatu zen, gainontzeoetan aurkitu nuen ez zelako hobe. *Undostres* delicatessen bat da prentsa-arrosa aitzakia hartuta jendea iraintzera dedikatzen den A3ko programaren ondoan. Ruperta mito bat da Chuck Norris-ena bezalako ETB2ko pelikulen ondoan. Euskarazkoan, pilota. Eta GOITBn publizitatea izoztuta. Alegia, ez zegoela non aukeratu. Bat-bi-hiru esan eta ohera joan nintzen.



Amaginarrebak erregalatutako sofaz libratu nahi duzu?

Ba, inoiz baino errazago duzu.
Deitu Mankomunitateko traste zaharren zerbitzura.

943 71 19 38



ETXEKO TRASTE ZAHARRAK JASOTZEKO ZERBITZUA

DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

OTSAILATIK AURRERA, BILKETA EGUNAK ALDATUKO DIRA

ALMACENES ARRASATE

650 m² zure zerbitzura merkatuko
marka onenekin:
Fagor, Aspes, Bosch, Philips, Sony...

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK ETA SUKALDEAK



Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Doan egingo dizkizugu proiektua eta aurrekontua. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3 • Roneo ondoan

Atzeskua

USOA AGIRRE

Ernesto Romero/ Gaztaina saltzailea

Duela urtebete etorri zinen Venezuelatik Euskal Herrira.

Bai, emaztea eta seme-alabekin etorri nintzen joan den urteko udaberrian. Gasteiz dugu bizitoki.

Nola hasi zinen gaztaina erreak saltzen?

Joan den urteko udan izozkiak saltzen aritu nintzen Landan eta Garaion, eta negozio hura zuen per-

tsona berak darama gaztaina erreena ere. Lanerako aukera zegoela ikusi nuen, eta horrela hasi nintzen, kasualitatez.

Bergararrek badute gaztaina erreak jateko ohitura-rik?

Konturatu naiz Euskal Herrian gaztaina erreak jateko ohitura handia dagoela. Jende askok erosten dizkit gaztainak, eta oso gustura nago.

Bezero batzuk finakoak dituzu, ezta?

Bai, hala da. Badago ia astebururo gaztainak erosten dizkidan jendea. Horien artean bada 3-4 urteko neskatu bat nire ondokit igarotzen den bakoitzean agur egiten didana.

Behin, gaztaina erreak erostera etorri zitzaidan neskatu hori, eta,

nahiko berandu zenez, ez neukan gaztaina errerik. Negarrez alde egin zuen neskatuak, eta pena handia hartu nuen.

Gustuko duzu lanbidea?

Bai, oso gustuko dut, batez ere jendearekin harreman ona dudalako. Baina badu bere alde txarra ere: usaina. Eguneroko ikaragarriko ikatz usainarekin iristen naiz etxera, eta usain hori gainera kentzea oso zaila da.

Hotzik, behintzat, ez duzu izango su ondoan...

Egia esan, ez. Lan honetan hasi aurretik ingurukoek esan zidaten neguan kalean lan egitea ez zela xamura izango, baina oso gustura nago, ez dut hotzik izaten. Eurria okerragoa da.

Eguraldiak ere izango du eraginik salmentan...

Batzuek diote zenbat eta hotz handiagoa egin, orduan eta gaztaina erre gehiago saltzen dela. Baina, nik

egiazatu dudanez, 8 eta 12 gradu arteko temperatura da egokiena.

Ikusten diozu etorkizunik lanbide honi?

Bai, badu etorkizuna. Gaztaina erreak jateko ohitura handia dago hemen. Nik, behintzat, jarraituko dut datorren denboraldian ere gaztaina erreak saltzen. Ez naiz, oraindik, lanbide honetaz aspertu. Saltzen ez dudanean asperaspe eginda egoten naiz, baina jende asko dabilenean konturatu barik pasatzen zait denbora.

Nori emango zenioke gaztaina zimel bat?

Bin Ladeni emango nioke gustura. Baina, gainerakoan, ez nioke inori gaztaina zimelik salduko.

Imajinatu zenuen inoiz Venezuelatik etorri eta lanbide honetan arituko zinenik?

Ez, inoiz ez. Baina oso gustuko dut lanbidea. Zorte handia izan dut.



“Euskal Herrian gaztaina erreak jateko ohitura handia dagoela konturatu naiz”

“Txarrena, usaina. Ikaragarriko ikatz usainarekin iristen naiz etxera, eta usain hori gainera kentzea oso zaila da”

“Gaztaina erreak saltzeko temperatura egokiena 8 eta 12 gradu artekoa da”

► *Venezuela / 45 urte / Bergaran saltzen ditu*

PIPERRAUTSA

Arizmendi

Asko akordatu barik, sudur aurrean sortu azaigu euskal ikastolarik handiena. Ibarreko lau erakunde batu dira, Umezaintza, San Viator, San Frantzisko Xabier eta Almen, Arizmendi izeneko hezkuntza kooperatiban. Honek atzean uzten du, besteak beste, Donostiako Santo Tomas Lizeo ospetsua.

Halere, ez dit gaur axola ikastola berriaren tamainak, ezta bategite prozesuak edo hezkuntza proiektuak. Arizmendi zen puzzle baten azken pieza, eta hau bere tokian jarri denean ikus ahal izan da puzzle osoa dakarren irudia. Eta gustatu zait.

Arizmendi sortu da MCCren baitan, zero urtetik hasi eta Unibertsitatera bitartekoa betetzeko. Egitura berean dago Mondragon Unibertsitatea eta garatzen ari da Garaia Berrikuntza Gunea. Hirurak jarraian hartuta, osatzen dute sekulako ibilbidea ikasketak burutzeko.

Finean, Debagoiengan jaiotzen denak aukera du kateatzeko lehen urratsak unibertsitatekoekin eta, hala nahi badu, hauek jarraitzeko nazioartean puntako izango den ikerkuntza eta hausnarketa gunean, eta hori guztia ibarretik irten barik. Eta bide amaieran lan ezberdinak zain, betiere MCCren baitan. Ez da egongo munduan beste komunitate bat 65.000 biztanlekoa, bere kideei horrelako aukera ematen dienik.

Ona da puzzle osoa ikustea, bakoitzaren lanak zentzua hartzen duelako. Eta sana da jakitea zertaz egon daitekeen harro Debagoiena.

MIKEL IRIZAR

SAIO BERRIA

IRAGANA GOGORATUZ

Martitzenean, urtarrilaren 20an, 20:30ean eta 22:30ean



Goiena Telebista

Ikusiko duzu!

IRAGANA GOGORATUZ
Goienak eta Fagor-ek lankidetzan egindako saioa

